



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko abenduaren 30a

151. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Legea, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (40. or.).

#### D SAILA:

##### **Hitzarmenak:**

- Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa aldatze aldera Koordinazio Batzordeak sinaturiko akordioa. Osoko Bilkuran erretiratua (43. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Legea, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko abenduaren 23an egindako Osoko Bilkuran, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2021eko abenduaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Foru Legea, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa**

#### **PREÁMBULO**

Foru lege honen xedea da ondorengo arau hauek aldatzea: Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen testu bategina, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea, Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari buruzko xedapenen testu bategina, Ondare eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko xedapenen testu bategina, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra, Fundazioen eta Babes Jardueren zerga araubidea ezartzen duen Foru Legea, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroiei buruzko Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoei buruzko Foru Legea, Ekonomia-jardueren gaineko zergaren edo lizentzia fiskalaren tarifak eta jarraibidea onesten dituen Foru Legea, eta Nafarroako Ogasun Publikoei buruzko Foru Legea.

Araugintzazko aldaketa hauen xedea da Foru Komunitateko tributu-araudia egokitzea tributu-harreman juridikoaren azpian dauden errealitate juridiko eta ekonomiko aldakorretara, etengabe bi

helburu nagusi bete nahian: tributu-arloko ekitatea hobetzea eta iruzur fiskalari aurka egitea.

Oro har, testu honen helburua da koherentzia handiagoa lortzea Foru Komunitateko araudi joriarren luze-zabalean. Maila eta arlo desberdinetako xedapenen arteko kontrakarren murrizteak segurtasun juridikoa areagotzen du eta gure ordenamendu juridikoaren ulermena hobetzen; eta, horrenbestez, konfiantza instituzionala ere handitzen du.

Horretarako, beharrezkoak diren hobekuntza teknikoak txertatzen dira, eta zenbait onura fiskalen erregulazioa doitu egiten da, interpretazioari dagozkion zenbait gai argitzearen, prozedurakoa nahiz substantiboak, tributu-kudeaketako esperientzia metatuak horretara behartzen baitu.

Aurrekoa gorabehera, nabarmendu beharra dago ehuneko 2 deflaktatzen dela pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren likidazio-oinarri orokorrari aplikatu beharreko tarifa, eta ehuneko 5 handitzen dela gutxieneko pertsonal eta familiarrengatik egin beharreko kenkarien zenbatekoa, horiek aldatuak izan gabe urte batzuk iragan ondoren. Neurri horien helburua da ekiditea errentaren gehikuntzak zergadunaren tributazioaren igoera ekartzea, errenta-gehikuntza horren jatorria inflazioan dagoenean eta, beraz, erosahalmenaren igoerarik ez dakarrenean. Aldi berean, zergari progresibitate handiagoa emateko, 100 euro handitu da gutxieneko pertsonalaren kenkaria, zergaldian 30.000 eurotik beherakoak direnean subjektu pasiboaren errentak, salbuetsiak barne. Neurri horrekin osatu egiten da 2019ko urtarrilaren 1az geroztik dagoena ondorengo ahaideengatik kenkariari buruz, horren kasuan ere zenbatekoa handiagoa baita 30.000 euro baino gehiagoko errentarik eskuratzen ez duten subjektu pasiboentzat.

Azkenik, aldaketa batzuk saiatzen dira erantzuna ematen tributu-xedapenetan hobekizun

diren zenbait zertzelada agerian utzi dituzten erabaki judizial batzuei.

Proiektu hau egitean aintzat hartu dira arauketa onaren harako printzipio haiek, ezarriak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko mar txoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 129. artikuluan. Horrela, foru lege honek beharizanaren eta eraginkortasunaren printzipioak betetzen ditu: justifikatuta dago interes orokorrari dagozkion arrazoiengatik, hainbat tributu-arau aldatzen dituzenez; oinarriturik dago lortu nahi diren helburuen, aurreko paragrafoetan definituen, identifikazio argian; eta, azkenik, helburu horiek lortzeko tresna egokia da, tributu-arloan legerako erreserbak agintzen baitu, zeina Tributuari buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 11. artikuluan jasota baitago.

Foru lege honek beste foru lege batzuen zenbait artikulua aldatzen ditu ahalik eta zehaztasun handienarekin, eta, beraz, proportzionaltasunaren printzipioa ere betetzen da. Bai eta, horrexegatik, segurtasun juridikoaren printzipioa ere. Izan ere, zehatz-mehatz zaindu dira ordenamendu juridikoaren gainerakoarekiko koherentzia, egonkortasuna, eta pertsona nahiz enpresentzako aurreikusgarritasuna eta zalantzagarritasunik eza, oreka egokia lortze aldera legegilearen borondatearen eta gainerako errealtate juridikoaren artean, bane harturik jurisprudentziarik berriena ere. Foru lege honekin lortu nahi diren zenbait helburu betetzeko, oso kontuan hartu da sinpletasun eta efizientzia printzipioa ere, zeinak xede baitu karga administratibo ez-beharrezkoak edo osagarriak saihestea eta baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatzea.

Foru legea, bera prestatzeko prozedura eta gainerako arauetan dituen efektuak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta nafarroa.eus webgunean argitaratzeak zaintzen du gardentasun eta irisgarritasun printzipioak errespetatuak izatea.

Amaitzeko, kontuan izan da gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunaren printzipioa, eta aldaketak egin dira, arauetan hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiltzearen.

Foru legeak haxe du egitura: hamar artikulua, lau xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta bost azken xedapen.

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari dagokionez, tarifaren ehuneko 2ko deflaktazio eta gutxieneko pertsonal eta familiarrengatik kenkariaren igoera jada aipatuz gain, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsak finantzatzeko

laguntzen ehuneko 50eko salbuespena jasotzen da laguntza horiek lehentasunezko nekazaritza-ustiatzearen titularrek jasotzen dituztenerako, eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak finantzatzekoaren ehuneko 100eko salbuespena. Biek batera 20.000 euroko muga dute.

Jarduera ekonomikoaren etekinei dagokienez, 36. artikulua aldatzen da, bertan jasotze aldera balio erantsiaren gaineko zergako araubide berezietan uko egiteak, eta horrek bakarrik (ez haietatik kanpo egoteak), ekartzen duela zuzeneko zenbatespen bereziaren araubidetik kanpo gelditzea. Orobat argitzen da ezen etekin garbia zehazteko modalitate bat edo bestea aplikatzea dakarren negozio-zifra ezartzearen kontuan hartu beharrezkoak diren laguntzak, dirulaguntzak eta kalte-ordainak konputatzeko direla haien guztizko zenbatespenen arabera, errenta salbuetsiak direla nahiz ez direla. Bukatzeko, ezartzen da ezen laguntzen eta dirulaguntzen zenbatespenak, salbuetsirik ez egoteagatik diru-sarreratzat hartzen direnean (ustiapenekoak nahiz kapitalekoen egozpena), etekin garbian sartuko direla, zuzeneko zenbatespeneko araubidearen modalitate sinplifikatuan eta modalitate berezian ezarritako murriztapenak aplikatu gabe.

Orainaldi-efektudun oinordetza-kontratu edo -itunetatik eratorriak diren heriotzagatiko eskurapen irabazizkoetan, eskuratutako elementuaren eskurapen-balioak eta -datak eguneratu ez daitezkeen, horrek eragin lukeelako tributazioa txikiagoa izatea ondasuna jatorrizko titularrak zuzenean beste pertsona edo entitate bati eskualdatu izanez baino, ezartzen da jatorrizko balioak mantenduko direla, baldin ondasun eskuratuak eskualdatzen badira bost urte iragan aurretik oinordetza-ituna egin edo kausatzailea hil (lehenago gertatu bada) zenetik.

Bestetik, atzerriko burtsan kotizatzen duten inbertsio kolektiboko erakunde kotizatueta hedatzen da Espainiako burtsan kotizatzen dutenek jasotzen duten tratamendua, geroratze-araubidearen aplikaezintasunari dagokionez; helburua da inbertsio kolektiboko zenbait erakundetan ("inbertsio-funts eta -sozietate kotizatu" deritzenak, edo ETF, ingelesezko sigletan) egiten diren inbertsioen tratamendua homogeneizatzea, kontuan hartu gabe kotizatzen duten merkatua nazionala edo atzerrikoa den. Hala ere, Espainiako balore-burtsan kotizatu gabeko atzerriko ETFak eskuratu dituztenen espektatibak babestearren eta intsuldaketen kasuan geroratze-araubidea baliatu ahal izan dezaten, araubide iragankor bat jasotzen da, zergadunak 2022ko urtarrilaren 1a baino lehenago eskuratutako partizipazio edo

akzioetarako, baldin eta diru-itzulketatik edo eskualdatzetik lortu den zenbatekoa erabiltzen bada intsuldaketa-araubidean destino izateko baldintza guztiak betetzen dituzten inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioak edo partizipazioak eskuratzeko (erakunde horien artean ez dira sartzen, jakina, ETF nazionalak ez atzerrikoak).

Zerga-oinarriaren murriztapenei dagokionez, gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenengatik aplikatzen ahal diren murriztapenen mugak egokitzen dira araudi sektorialaren bidez aldatutako ekarpen-muga finantzarioetara; izan ere, banakako sistema pribatuetara egindako ekarpenen muga finantzarioak jaitsi, eta indartzen ditu enplegu sistemetara egindako kontribuzioak eta ekarpenak.

Argitzen da, halaber, enpresaburu indibidualak enpleguko pentsio planetara edo gizarte aurreikuspeneko mutualitateetara egiten dituen ekarpen berekiak, horien sustatzaile eta partaide edo mutualista izanda, bai eta enpresa-arloko gizarte-aurreikuspeneko planetara edo mendekotasun-aseguru kolektiboetara egiten dituenak ere, horietan aseguru-hartzaile eta aseguratu izanda, enpresa-kontribuziotzat joko direla. Hala aurreikusirik dago pentsio-plan eta -funtsei buruzko legearen testu bateginean.

Kuotaren kenkarien arloan, finkatu egiten da COVID neurria, abenduaren 29ko 21/2020 Foru Legeak 2021erako ezarritakoa, eta 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin txertatzen da gizarte-segurantzari ordaindutako kuoten ehuneko 100eko kenkaria, kuota horiek dagozkionean familiaren etxean subjektu pasiboa edo aurreko nahiz ondorengo ahaideak zaintzen lan egiten duten pertsonekin formalizatutako kontratuei. Bidenabar argi uzten da kenkaria aplikatzen zaiola enplegatazaileak ordaintzen duen kotizazio-zatiari; hots, ez dela inola ere aplikatzen enplegatuari dagokion zenbatekoaren gainean, ordainketa nork egiten duen gorabehera.

Ezartzen da bateraezinak direla enpresa- edo lanbide-jarduera jakin batzuetan aritzeagatiko kenkaria eta zuzeneko zenbatespen berezian ezarritakoak diren etekin garbiaren murriztapenen aplikazioa, halaber bateraezina den bezalaxe zuzeneko zenbatespen sinplifikatuan ezarritako murriztapena ere, etekin garbiarena.

Ibilgailu elektrikoetan edo hibrido entxufagarrietan eginiko inbertsioagatiko kenkariari dagokionez, zeina 62.13 artikuluan araututa baitago, kenkari-portzentaje handiagoak ezartzen dira ibilgailu elektriko eta hibrido entxufagarrietarako, errentarik baxueneko subjektu pasiboentzat.

Horrela, subjektu pasiboaren errentak, salbuetsiak barne, ez badira zergaldian 30.000 euro baino gehiagokoak, kenkari-portzentajeak izanen dira ehuneko 35ekoa ibilgailu elektrikoetarako eta ehuneko 10ekoa ibilgailu hibrido entxufagarrietarako, eta ez arau orokor gisa ezarritako ehuneko 30ekoa edo ehuneko 5ekoa. Baldin subjektu pasiboa familia-unitate baten kide bada, aipatu errenta-muga ez da 60.000 euro baino gehiagokoa izanen, eta familia-unitatearen osotasunari buruzkoa izanen da.

Bestalde, kuota diferentzialaren kenkariari dagokionez, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren onespena dela eta, beharrezkoa da ezartzea bateraezina dela alargun-pentsioen eta kotizaziopeko erretiro-pentsioen ondoriozko kenkariarekin, bai eta kotizazio gabeko erretiro pentsioengatiko kenkariarekin ere; era berean, kenkari horiek guztiak bateraezinak dira errenta bermatua jasotzearekin.

Errentamenduagatiko kenkarien arloan, bateratu eta laburtu egiten dira etxebizitza eskuratzeko errentamenduagatiko kenkarirako eskubidea izateko eskatzen diren epeak, eta, horrekin batera, 650 eurotik 675 eurora igotzen da alokairuaren gehieneko zenbatekoa, hain zuzen ere emantzipaziorako eta etxebizitza eskuratzeko errentamenduagatiko kenkariak aplikatzeko eskubidea ematen duena. Horrez gain, 2022ko urtarrilaren 1ean edo geroago enplegu eskatzaile langabetu gisa izena emanik dauden zergadunei 2022an aukera ematen zaie emantzipaziorako errentamenduagatiko kenkaria (EMANZIPA) aplikatzeko, haien adina kontuan hartu gabe.

Azkenik, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian beharrezkoak diren egokitzapenak egiten dira, ekainaren 2ko 8/2021 Legeak egindako aldaketekin bat etortzeko; lege horrek legeria zibila eta prozesala aldatzen ditu, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoaz baliatzen laguntzeko.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, "enpresa txiki" kontzeptua egokitzen da Europako Batzordeak 2003ko maiatzaren 6an mikroenpresen, enpresa txikien eta enpresa ertainen definizioari buruz emandako Gomendioarekin bat etortzeko, 12.1.b) artikuluko baldintzatik salbuetsirik partaidetzako sozietate publikoen parte-hartzea duten enpresak, parte-hartzea entitate horien xede soziala betetzearen ondoriozkoa denean.

Ibilgailuen erabilerak eragindako gastuen kenkariaren mugen ondorioetarako (23.3 artikulua), ezartzen da "jeep" eta "pick up" motako ibilgailu mistoak turismotzat hartzen direla.

Asimetria hibridoiei dagokienez, Kontseiluak 2017ko maiatzaren 29an emandako 2017/952 Zuzentarauaren transposizioa burutzen da, zuzentarauaren arabera asimetria hibridoiei buruzko arauak aplikatu behar ez diren kasuak jasotzeko, hau da, haien arrazoa denean onuraduna zerga ordaintzetik salbuetsita egotea, edo balorazio diferentziak gertatzea, edo tributu-araubide berezi bati loturik dagoen tresna edo kontratu finantzario batean oinarritutako eragiketa edo transakzio bat egotea.

Ikerketa eta garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatikoen kenkariaren kasuan, argitzen da zein den kenkariaren sortzealdia proiektuaren kalifikazio-txostenean sartuta dauden baina txosten hori eskatu aurreko bi zergaldietan eginak diren gastuei dagokienez. Kasu horretan ulertuko da kenkaria sortu dela I+G+b proiektuaren kalifikaziorako eskaera aurkeztu den zergaldian.

Bestalde, kenkaria modu egokian aplikatu dela egiaztatzeko lanak hobetzearen, ezartzen da kenkaria sortzeko baldintza izanen dela I+G+b gastuak justifikatzen dituen dokumentazioa aurkeztea 75. artikuluan ezarritako aitoren-aurkezpeneko epean, halako moldez non, dokumentazioa ez bada epe horretan aurkezten, galdu egiten baita kenkaria aplikatzeko eskubidea.

Halaber, ekoizpen zinematografikoetan egindako inbertsioengatikoen kenkariaren zenbait alderdi aldatzen dira. Lehenengo eta behin, kenkariaren aplikazio eremua film laburretara eta ikus-entzunezko beste lan batzuetara hedatzen da, horiek serie nahiz lan bakar izatea gorabehera, eta beharrezkoa izan gabe horien emanaldia zinema-areto batean egitea.

Bigarrenik, produktore eragilearen kenkaria dela-eta, tarteki bat sartzen da, kenkaria egin nahi duten ekoizpenek kulturaltasun-ziurtagiria beharko dutela ezartzeko. Baldintza hori egungo testuarekin beharrezkoa zela jotzen zen, baina egoki iritzi zaio hori esanbidez jasotzeari.

Bestetik, aipamen bat ezabatzen da, ikus-entzunezko lan zailen buruzkoa, zeinak erregelamenduz ezarri beharrezkoak baitziren, eta estatu-araudiaren nondik norako berberekin ezartzen da –horrenbestez, laguntzen alorreko europar araudi-koekin ere– zer ekoizpen-kategoriak aplikatzen ahalko duten ehuneko 50 baino gehiagoko etekinmuga bateratua ekoizpen batekin lorturiko etekin-erakoa.

Azkenik, kreditu-tituluetan Navarra Film Commission-en sostenguaren aipamena eta haren logotipoa txertatzeko betebeharra ezabatzen da.

Tributu-arloko adituen batzordeak egindako txostenarekin bat, enplegua sortzeagatikoen kenkaria ezabatzen da, haren eraginkortasun falta dela-eta. Txosten horretan aipatzen denez, pizgarri horren ordez enplegu-politika aktiboak ezar litezke.

Azkenik, 2022ko zergaldian zehar luzatu egiten dira likidazio-oinarri negatiboak konpentsatzeko mugak 2018, 2019, 2020 eta 2020ean existiturik 20 milioi euro baino gehiago fakturatzen duten enpresentzat. Hamazazpigarren xedapen gehigarrian jasotzen dira.

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari dagokionez, adoptatuekin parekatuta uzten dira familia-harrera iraunkorrean edo adopzio aurreko bizikidetzarako zaintzan dauden pertsonak, eta adoptatzaileekin parekatuta, berriz, familia-harrera iraunkorra egiten dutenak edo adopzio aurreko bizikidetzarako zaintza eskuordetuta dutenak. Parekatze horrek zerikusia du harrera sustatzeko neurriekin, zeinak jasota baitaude Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzeko Foru Legearen aurreproiektuan.

Familia-enpresa den hori “mortis causa” eskuratzearen gaineko zergatik salbuesteko baldintzetako bat ezabatzen da, hain zuzen ere heriotza gertatu aurreko 5 urteetan enpresa bera edo haren partaidetzak eduki izanarena, eta exijitzen da ondarearen gaineko zergatik salbuesteko baldintzak betetzea, bai partaidetzen kasuan, bai enpresa indibidual baten edo negozio profesional baten kasuan (gure inguruneke araudiarekin bat etorriz). Zuzentzen dira, halaber, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legeaz eta Pertsona fisikoen Errentaren gaineko zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaz egiten diren arau-aipamenak.

Familia-enpresa dohainik eta “inter vivos” eskuratzearen gaineko salbuespena arautzen duen 12.d) artikuluan, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legeaz egiten den arau-aipamena zuzentzeaz gain, doikuntza bat egiten da, eskualdaketa aurreko 5 urteetan partizipazioak edo enpresa bera eduki izanaren baldintza mantentzeko. Horrela, aurretik eduki izanaren baldintza ezabatzen da “mortis causa” eskurapenen kasuan soilik (halakoetan, baldintza bat da zeinaren betetzea ez baitago zergadunaren borondatearen menpe); aldiz, familia-enpresaren dohainikako eta “inter vivos” eskurapenaren salbuespena aplikatzeko baldintzetan ez da inolako aldaketarik egiten.



Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren testu bateginean zenbait zuzenketa tekniko egiten dira eta, horrez gain, paragrafo berri bat gehitzen da 20 bis.1 artikuluan, argitzeko zein den zerga-oinarriaren zenbatekoa hipoteka-maileguen subrogazioa eta aldatze-nobazioa egiteko eragiketak dokumentatzen dituzten eskritura publikoetan.

Bestalde, 35.I.B artikulua 22. apartatuan Konpilazioari buruzko tarteki bat sartzen da, desgaitasuna duten pertsonen ondare babestuei egiten zaizkien ekarpenen formalizazioaren salbuespena deklaratzeko, Foru Berriarekin bat.

Halaber jasotzen da ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergatik salbuetsiko direla 2021eko azaroaren 3ko Estatu-ko Aldizkari Ofizialean argitaratutako azaroaren 2ko 24/2021 Errege Lege-dekretuak arautzen dituen bonu bermatuen, hipoteka-partizipazioen eta hipoteka-eskualdaketako ziurtagirien jaulkipe-na, eskualdaketa, amortizazioa eta itzulketa.

Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean, aldatzea batzuek gain, zehaztuen kontzeptualen bat edo beste egiten da 27. eta 68. artikuluetan, jardura ekonomikoak egiten dituztenen kontabilitate-, fakturazio- edo kudeaketa-prozesuen euskarri diren sistema eta programa informatiko edo elektronikoen arloko betebeharrak eta arau-hausteei buruz.

Kapital Sozietateei buruzko Legearen testu bategina aldatzen duen apirilaren 12ko 5/2021 Legearekin bat, informazio betebeharrak berri bat ezartzen da 103.1.d) artikuluan, Zerga Administrazioak modua izan dezan dibidenduen amai-onuradunari buruzko informazioa balore-gordailuzain zentraleri eskatzeko.

Bestetik, esanbidez ezartzen da ezen, zor bat ordainketa-epe exekutiboan sartzen denean, geroratze-, zatikatze- edo konpentsatze-eskaera hutsak ez duela galaraziko premiamendu-prozeduraren hasiera edo jarraipena, ondasun enbargatuak besterentzeko jarduketetara arte.

Auzitegi Gorenaren azken doktrina jurisprudenzialaren gerizpean, huts-hutsean prozedurari buruzkoak diren aldatzea batzuk jasotzen dira Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren 131.2 artikuluan, eraginik izan gabe egoitzaren ukiezintasunerako eta kontrol judizialezko bermeetarako oinarriko eskubidearen edukian, eta aldatzea horiek argitu egiten dute zergapekoaren egoitza konstituzionalki babestuan sartzeko baimenemate judizialaren araubidea, sartze hori tributua aplikazioko jarduketa edo prozedura baten barruan Zerga Administrazioak eskatzen duenean.

Tributu-arloan estatu-laguntzak berreskuratzeari buruzko xedapen orokorreari dagokienez, Deggendorfen printzipioa aitortzen da, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak berretsia C-355/95 P auzian emandako epaian. Printzipio horren arabera, ezin zaio estatu-laguntza indibidual berririk eman enpresa bati, enpresa horrek bete gabe duenean Europako Batzordearen Erabaki batetik eratorritako itzulketa-betebehar bat.

Beste alde batetik, tributuei erolden kudeaketa hobetzeko helburuz, identifikazio fiskaleko zenbakia errebokatzeko araubidea aldatzen da, zenbakia errebokatu izan zaien entitate inaktiboek ezin dezaten inskripzioari egin inongo erregistro publikotan, ez eta eskriturarik notariatzetan egiletsi ere, kasuan-kasuan orri-bazterreko oharra ezeztatzeko nahitaezko tramiteak egiteko ez bada.

Apirilaren 14ko 27/2021 Foru Dekretuaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarra sortu ondoren, bikote egonkorren erregistro fiskala indargabetu, eta urtebeteko epea eman zen (2022an zeharrekoa), erregistro fiskalean inskribaturik egonik ondorio fiskalarako ezkontideen pareko izaten segitu nahi duten bikote egonkorrek izena eman dezaten Erregistro Bakarrean edo beren araudi zibilaren arabera aplikatzeko zaien horretan.

Horrenbestez, dagokien erregistroan izena ematen ahal duten bikote egonkor guztiek hala egin beharko dute, ondorio fiskalei begira ezkontideekin parekatuak izateko.

Hogeita hamaseigarren xedapen gehigarri berria jartzen da, jurisdikzio ez-lagungarrien arloko gaietan araubide erkideak ezartzen duenari heldu behar zaiola dioena. Nazioarteko parametro berriei jarraituz, "paradisu fiskal" terminoaren ordez "jurisdikzio ez-lagungarriak" paratzen da, eta "tributu-gaietako informazioaren edo tributuarloan egiazko trukea egiten duten estatuak" dioten arau-aipamenei ordez, berriz, "tributu-informazioa trukatzearan arloan elkarrekiko laguntzari buruzko araudian kide diren estatuak".

Azkenik, 2022rako luzatzen dira tributuzko zorra geroratzeko edo zatikatze eskaerei aplikatu beharreko neurri zehatzak, aurreko urteetan indarrean egon direnak.

Fundazioen eta babes jardueren tributua araubide erregulatzen duen 10/1996 Foru Legea aldatzen da, Nafarroako Fundazioei buruzko ekainaren 30eko 13/2021 Foru Legearen onespentetik eratorritako aldatetara egokitzeko. 2021eko uztailaren 17tik aurrerako eraginez, aipatu 13/2021 Foru Legeak arautzen ditu 10/1996 Foru Legeak arautzen zituen alderdi eta gai batzuk,

haren artikulua batzuk indargabeturik eta beste batzuk partzialki zaharkituta utzirik.

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko Foru Legean, udal-tako eta udalez gaindiko balorazio txostenak egiteko batzorde mistoen osatzea arautzen duten artikulua aldatzen dira, batzordeetako kide guztiak Nafarroako Foru Ogasuneko kudeaketa-zuzendaritzak izenda ditzan bertako teknikarien artean.

Horrez gain, indargabetzen da hirugarren xedapen gehigarria, zeinak ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergatik salbuesten baitzituen zenbait erregistro-finkaren bat-egitea edo eranstea formalizatzeko egiletsitako eskritura publikoak, ondoriozko finka Jabetzaren Erregistroan inskribatzearen ondorioetarako, baldin eta finka horien multzoa lurzati bakartzat agertzen bada Lur-ondasunen Erregistroan. Salbuespen hori ezartzearen arrazoia izan zen Jabetza Erregistroaren eta Lur-ondasunen Erregistroaren artean beharrezkoa den koordinazioa sustatzea. Gaur egun, koordinazio hori eskura ditugun elementu teknologikoei esker lortzen da, bi instituzioen arteko datu truke segurua eta arina eginez, arau esparru egoki batean. Beraz, hura arautzeko arrazoia desagertu egin da eta bidezkoa da indargabetzea.

Tasa eta Prezio Publikoari buruzko Foru Legean zenbait aldaketa egiten dira. Orain arte lanbide gaitasuna egiaztatzeko prozedurarekin lotutako tasek tramitazioa eragozten diete herritarrei, eta kudeatze-lan erantsi bat dira Hezkuntza Departamentuarentzat; horrez gain, prozedura finantzatu batean parte hartzen duten pertsonen gastua eragiten diete, eta Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioarengandik jasotzen den finantzaketatik deskontatu beharreko diru-sarrera bat direnez, baliabide-ekarpen garbirik ere ez diote egiten Foru Ogasunari. Arrazoi horiengatik ezabatzen da 14. tarifa. Horren ondorioz eta beste baten errepikapena zenez, indargabetu egiten da 39. artikulua.

Enpleguaren aldi baterakotasuna murrizteko legearen ondorioz Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen hauta-prozesuetan parte hartzeri doazen izangaien kopuru izugarriari erantzuteak behartzen duen zerbitzu publikoaren kontraprestazio gisa, azterketa-eskubideengatik tasa, 23. artikuluan arautua, izenez aldatu eta "funtzio publikoan sartzeko hautaproseduretan parte hartzeko eskubideengatik tasa" deituko da, zeren eta zerga-oinarria halako moduz aldatzen baita non ez baita soilik jasotzen hautaprosen bitarteko funtzio publikorako sarbi-

dea, baizik eta azterketa batean gauzatzen ez diren prozeduren bitarteko ere.

Horrez gain, tarifa berri bat sortzen da gidarien prestakuntza eta azterketarako zentroi buruzko tasa berria jasotzeko, zeregin hori Nafarroak izan baitu trafikoaren arloko eskumenak bere gain hartu ondoren. Tasa horren zenbatekoa Trafiko Zuzendaritza Nagusiak gaur egun duen bera da.

Aldatzen dira, halaber, "Nekazaritzako Elikagaien Laborategian analisi zerbitzuak emateagatik tasa" izenekoan dauden tarifen kontzeptu batzuk, eta zehaztapenak teknikaren arabera multzokatzen dira, bai eta, kasua bada, analisi-prozeduraren arabera ere, eta deskontuak ezartzen dira eskatzen diren zehaztapen analitiko bereko analisi bateratuen kopuruaren arabera.

Halaber, zehaztapen berriak Enologia Laborategiaren tarifetan sartzen dira, eta haietako batzuen izena modu egokiagoan adierazteko baliatzen da aldaketa.

Ekonomia-jardueren gaineko zergaren edo lizentzia fiskalaren tarifak eta jarraibidea onesten dituen Foru Legean epigrafe bat sortzen da, arroparen edo elikaduraren arloan nagusiki aritzen ez diren saltoki handietarako, orain arte ez baitzuten epigrafe berekirik, eta gainerako saltokiei ematen zaienaren antzeko tratamendua ematen zaie, "Merkataritza misto integratua edo saltoki handietakoa" izeneko 661. taldearen barruan.

Beste epigrafe bat sortzen da jarduera berri baterako: ibilgailu elektrikoak energiaz hornitzea nonahi jarritako karga-guneen bidez (dela bide publikoan, gasolindegietan, garaje publiko eta pribatuetan edo beste edozein tokitan).

Bukatzeko, 863. taldea aldatzen da, bertan jasotze aldera kazetariak eta informazioaren eta komunikazioaren beste profesional batzuek betetzen duten jarduera, orain arte ez zuelako berriazko epigraferik.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legean eguneratu egiten dira hirilurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren oinarria zehazteko aplikatu beharreko gehieneko koefizienteak. Toki Ogasunei buruzko Foru Legean xedatutakoari jarraituz, koefiziente horiek urtero eguneratu behar dira.

Bestalde, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren tarifak % 3,2 eguneratzen dira, 2020ko ekainetik 2021eko ekainera bitartean KPIk izandako gehikuntzarekin bat etorrira.

Lehen xedapen gehigarriak ezartzen duenez, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik eta

sozietateen gaineko zergatik salbuetsirik egonen dira martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege-dekretuaren babesean emandako laguntzak. Errege lege-dekretu horren bidez enpresen kaudimenari laguntzeko neurri bereziak onartu ziren, Covid-19aren pandemiari erantzunez.

Bigarren xedapen gehigarriak jasotzen du 2022an desegin eta likidatzea erabakitzen duten kapital aldakorreko zenbait inbertsio-sozietateetako bazkideei aplikatzekoa zaien zerga-araubidea.

Iruzur fiskala prebenitu eta borrokatzeko neurri buruzko uztailaren 9ko 11/2021 Legeak baldintza gehigarriak ezartzen ditu kapital aldakorreko inbertsio-sozietateek (SICAV gisa ezagutuak direnak) sozietateen gaineko zergan ehuneko 1eko karga-tasa aplikatzeari dagokionez.

Aldaketa horrekin batera, araubide iragankor bat ezarri da desegitea eta likidatzea erabakitzen duten SICAVentzat. Araubide horren xedea da sozietate horien bazkideei aukera ematea beren inbertsioak karga tasa hori mantentzeko baldintzak betetzen dituzten inbertsio kolektiboko beste erakunde batzuetara aldatzeko.

Gaur egun Nafarroan ez dago foru araudiari loturiko SICAVik eta, beraz, ez dira arautu behar Estatuko araudiak sozietate horien inguruan jasotako araubide iragankorraren alderdiak; halere, komenigarritzat jotzen da foru araudia bete behar duten bazkideei –persona fisikoak edo juridikoak izan– eragin diezaieketen zertzeladak jasotzea. Horretarako, geroratze araubide bat ezarrita persona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren tributazioan 2022an zehar desegitea eta likidazioa egitea erabakitzen duten kapital aldakorreko inbertsio-sozietateetako bazkideentzat, baldin eta beren inbertsioa sozietateen gaineko zergan % 1eko karga tasa mantentzeko baldintzak betetzen dituzten inbertsio kolektiboko beste erakunde batzuetara aldatzen badute.

Hirugarren xedapen gehigarriak salbuetsi egiten ditu hirugarrenetik eragiketen urteroko aitopena aurkezteko betebeharretik, 2021eko aldiari dagozkien eragiketei dagokienez, persona fisikoak eta errenta-eratzikitze araubideko entitateak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, zuzeneko zenbatespeneko araubideko modalitate berezian zergapetzen diren jarduerengatik eta, aldi berean, balio erantsiaren gaineko zergan, araubide berezi erraztuan edo nekazaritza, abelzaintza eta arrantzarenean, edo baliokidetasun-errekargutik, salbu eta faktura jaulkita daukaten eragiketengatik.

Halatan, 2020an zenbatespen objektiboaren metodoaren arabera PFEZaren zergapetzea zeukateneko betebeharrak mantentzen dituzte.

Tributu-arloko adituen batzordeak emandako gomendioei jarraituz, laugarren xedapen gehigarriak baimena ematen dio Nafarroako Gobernuari testu batekin bat egin dezan 2023ko ekainaren 1a baino lehen, fundazioen tributu-araubidea eta mezenasgorako pizgarri fiskalak jasoko dituen. Baimen horrek ahalbidetzen du bateratu beharreko lege-testuak erregularizatu, argitu eta harmonizatzea.

Xedapen indargabetzailean, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren aldaketak deskribatzean adierazi den bezala, esanbidez indargabetzen dira, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuekin, otsailaren 19ko 73/2014 Foru Agindua, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariarena, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko bikote egonkorren erregistro fiskalaren edukia eta funtzionamendua, eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariaren apirilaren 4ko 117/2014 Foru Aginduan bikote egonkorren erregistro fiskalaz egiten diren aipamenak; foru agindu horren bidez, 030 eredu berria onesten da, "Helbide-aldaketa edo norberaren edo familiakoen datuen aldaketa komunikatzea. Bikote egonkorren erregistro fiskala" izenekoa.

Azken xedapenetako lehenak beharrezkoak diren doikuntzak egiten ditu Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 3. quater artikuluan, hori Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 68. quinquies artikuluekin koordinatzeko, zeinean arautzen baitira etxebizitza bat alokairu araubidean eskuratzea errazteko kenkariak.

Azken xedapenetako bigarrenak aldatu egiten du Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legearen 13. artikulua, zeinak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzekoak diren isurtze-sariaren tarifak jaso baititu, ezarri zirenak zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko abenduaren 28ko 25/2016 Foru Legearen zazpigarren artikuluan (indargabetua izan dena). Horrez gain, ezkutuko ur-ihesak daudenean kanoaren tarifak aplikatzeko irizpidea foru lurralde osoan bateratzeko xedez, beharrezkotzat jo da kasu horietarako tarifa berezitua ezartzea.

Bestalde, azken xedapenetako hirugarrenak aldatu egiten du ekainaren 5eko 7/2009 Foru



Legea, Foru Komunitateko zergadunek interes sozialeko beste xede batzuetarako bideratzen dituzten tributuen ehuneko 0,7aren esleipena arautzen duena, halako moldez non sozietateen gaineko zerga ordaintzen dutenek ere aukera izan dezaten kuota osoaren ehuneko 0,7a interes sozialeko xedeetara bideratzea erabakitzeko.

Bukatzeko, azken xedapenetako laugarrenak Nafarroako Gobernua gaitzen du beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan foru lege hau garatu eta aplikatzeko, eta azken xedapenetako bosgarrenak ezartzen du foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko duela indarra, bertan aurreikusitako efektuekin.

**Lehen artikulua.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren manu hauek (testu bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) honela idatzita geldituko dira:

**Bat.** 7. artikuluari z) letra gehitzea, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako indarrez.

“z) Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) osotasunean finantzatzen dituen laguntzen ehuneko 100.

Era berean, salbuetsirik egonen da Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsak (NBEF) osotasunean finantzatzen dituen laguntzen ehuneko 50, baldin eta horiek jasotzen dituztenak badira kobratze-unean lehentasunezko izatearen kalifikazioa duten nekazaritza-ustiateginen titularrak.

Bi kontzeptuengatik jasotako laguntzei dagokien salbuespenaren gehieneko zenbateko bateratua ezin izanen da izan 20.000 euro baino gehiagokoa”.

**Bj.** 14.1.e) artikulua.

“e) Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Pentsio Plan eta Funtsen araubideari buruzko Legearen testu bateginean adierazitako pentsio planen sustatzaileek ordaindutako kontribuzio edo ekarpenak eta, orobat, enpleguko pentsio-funtsen jarduerari eta haiek gainbegiratzeari buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2016ko abenduaren 14an emandako 2016/2341 (EB) Zuzentarauan jasotako sustapen-enpresek ordaindutakoak”.

**Hiru.** 36. artikulua, B.1.c) letra eta C) letraren lehen paragrafoa aldatzea, eta D) letra gehitzea, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuekin.

“c) Ezin izanen dute modalitate hau aplikatu balio erantsiaren gaineko zergako nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziari edo araubide sinplifikatuari uko egiten dioten subjektu pasiboek”.

“C) Negozio-zifraren zenbateko garbia honela zehaztuko da: subjektu pasiboaren ohiko jardueretan produktu-salmentatik, zerbitzu-ematetik edo beste diru-sarrera batzuetatik ateratako zenbatekoei, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide bereziko konpentsazioa kasua bada barne dela, kenduko zaizkie salmenten gaineko hobariak eta gainerako murriztapenak, bai eta balio erantsiaren gaineko zerga ere, baliokidetasun-errekarguaren araubidera bildutako subjektu pasiboan kasuan izan ezik, eta aipatutako negozio-zifrarekin zuzeneko zerikusia duten beste zerga batzuk. Era berean, konputatuko dira laguntza eta dirulaguntza arruntak eta kapitalarenak, bai eta jardueraren diru-sarreretan izandako galarak konpentsatze aldera jasotako kalte-ordainak ere, salbuetsizat jo izan diren zenbatekoak barne. Komisio-hartzaileak izanez gero, kontuan hartuko da komisioen zenbateko osoa”.

“D) Salbuetsi gabeko laguntza edo dirulaguntzen ondoriozko diru-sarrerari dagokien zenbatekoa etekin garbian sartuko da, A).3 eta B).4 letratan jasotako murriztapenak aplikatu gabe”.

**Lau.** 42. artikulua, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuekin.

“42. artikulua. Irabazizko eskurapena edo eskualdaketa.

Eskurapena edo eskualdaketa irabazizkoa izan denean, kasuan kasuko balioak izanen dira oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren arauen aplikaziotik eratorriko lirartekeenak. Merkaturako balioa ezin dute gainditu.

Hala ere, orainaldi-efektudun kontratu edo oinordetza-itunetatik eratorriak diren heriotzagatik irabazizko eskurapenetan, horien onuradunak ondasun eskuratuak eskualdatzen baditu oinordetza-ituna egin edo kausatzailea hil zenetik (lehenago gertatu bada) bost urte iragan aurretik, kausatzailearen posizioan subrogatuko da ondasunen eskurapen-balioari eta -datari dagokienez, balio hori aurreko paragrafoan aurreikusitakoa baino txikiagoa izanez gero.

Balio horiei, kasua bada, 41. artikuluko 1.b) eta 2. apartatuetan xedatutakoa aplikatuko zaie.

39.4.c) artikuluan aipatzen diren irabazizko eskurapenetan, dohaintza-hartzailea dohaintza-emailearen posizioan subrogatuko da ondasun horien eskuratzeko-balioei eta -datei dagokienez”.

Bost. 52. artikulua, 1.a) apartatua, azken paragrafoa eta 3. ordinala gehitzea 2.a) apartatuan, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuekin.

“Halaber, aipatu gerorapen araubidea ez da aplikagarria izanen baldin eta eskualdaketak edo diru-itzulketak edo, kasua bada, harpidetzak edo eskurapenak xedetzat baditu inbertsio kolektiboko erakundeen ondarea ordezkatzan duten partizipazioak, artikulua honetan aipatzen direnak, inbertsio funts kotizatutzat edo mota bereko sozietateen akziotzat hartzen direnean, Inbertsio kolektiboko erakundeetarako buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea garatzen duen Erregelamenduko 79. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Erregelamendu hori uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen”.

“3. Diru-itzulketak edo eskualdaketak edo, kasua bada, harpidetzak edo eskurapenak, xedetzat ez izatea 35/2003 Legea garatzen duen Erregelamenduko 79. artikuluan aipatzen diren inbertsio funts kotizatuen edo mota bereko sozietateen parekoak diren inbertsio kolektiboko erakundeetarako partizipazioak edo akzioak, edozein direla ere haiek kotizatzen duteneko merkatu arautu edo negoziazio-sistema aldeaniztuna eta erreproduzitzen, errepikatzen edo erreferentziazat hartzen duten indizearen osaera”.

Sei. 55.1 artikulua, 1. ordinalako bigarren paragrafoa, 4. ordinalako hirugarren paragrafoa, 6. ordinalako bigarren paragrafoa, 7. ordinala, a), b) eta b) letrak eta 9. ordinala, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuekin.

“Halaber, enpleguko pentsio funtsen jardueri eta gainbegiratzeari buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2016ko abenduaren 14an emandako 2016/2341 EB Zuzentarauan arautzen diren pentsio planetara partaideek eginiko ekarpenak, barne harturik sustatzaile diren enpresek eginiko kontribuzioak, betebeharrak hauek betetzen badira:”

“Subjektu pasibo beraren alde primak ordaintzen dituzten pertsona guztiek egindako murriztapenen multzoa, subjektu pasiboak berak egindakoak barne harturik, gehienez 1.500 eurokoa izanen da urtean”.

“Aurreko paragrafoan aipatutako muga handitu egingen da, kasua bada, 7. ordinalako b) letran adierazitako zenbatekoan”.

“b) 1.500 euro urtean.

Muga hori 8.500 euro igoko da baldin eta igoe-ra hori heldu bada enpresek gizarte aurreikuspeneko sistemei egindako kontribuzioetatik, kontribuzio horiek egotziak izanez gero partaideei, aseguratuei edo mutualistei, edo langileak gizarte aurreikuspeneko tresna berari egindako ekarpenetatik, ekarpen horien zenbatekoa kasuko enpresa-kontribuzioaren zenbateko berekoa edo txikiagokoa izanda.

Ondorio horietarako, enpresak egindako ekarpenak langilearen ekarpenentzat joko dira baldin eta langilearen erabaki batetik eratorri badira.

Enpresaburu indibidualak enpleguko pentsio planetara edo gizarte aurreikuspeneko mutualitateetara egiten dituen ekarpen berekiak, baldin eta bera plan horien sustatzaile eta partaide edo mutualitateko kide bada, bai eta enpresa arloko gizarte aurreikuspeneko planetara edo mendekotasuneko aseguru kolektiboetara egiten dituenak ere, baldin eta aldi berean haien hartzaile eta aseguratua bada, enpresa-kontribuziotzat joko dira, muga honen konputuari dagokionez”.

“b) Gainera, muga bereki eta independente gisa, urtean 5.000 euro, enpresek mendekotasun-aseguru kolektiboetarako ordaindutako primetarako, 4. ordinalako azken paragrafoak aipaturiko kasuetan”.

“9. Aurreko mugen arabera egindako murriztapenak alde batera utzita, subjektu pasiboek, baldin beren ezkontideak lan etekin garbirik edo lanbide- edo enpresa-jardueren ondoriozko etekinik jasotzen ez badu, edo horiek urtean 8.500 euro baino gutxiago egiten badute, zilegi izanen dute zerga-oinarri orokorra murriztea artikulua honetan bildutako gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenen zenbatekoan, betiere ezkontidea horien partaide, mutualista edo titularra izanik, urteko 1.000 euroko gehienez mugarekin. Ekarpenei ez zaie oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga aplikatuko”.

Zazpi. 59.1. artikulua. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuak izanen ditu.

“1. Likidazio oinarri orokorrari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

LIKIDAZIO-OINARRIA, ZENBATERAINO (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)	OINARRIAREN GAINERAKOA, ZENBATERAINO (eurotan)	APLIKATZEKO DEN TASA (ehunekoa)
		4.162	13
4.162	541,06	5.202	22
9.364	1.685,50	10.404	25
19.768	4.286,50	13.525	28
33.293	8.073,50	14.566	36,50
47.859	13.390,09	14.566	41,50
62.425	19.434,98	20.808	44
83.233	28.590,50	46.818	47
130.051	50.594,96	52.020	49
182.071	76.084,76	130.050	50,50
312.121	141.760,01	oinarriaren gainerakoa	52"

Zortzi. 62.5.1.b) artikulua.

“b) 10.500,01 eta 17.500 euro arteko lan-etekin garbiak dituzten subjektu pasiboek: 1.400 euro ken etekin garbi horien zenbatekoari 10.500 euro kenduta bider 0,1 eginda ateratzen den emaitza”.

Bederatzi. 62.9. artikulua, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuekin.

“9. Kenkari pertsonal eta familiarrak:

a) Gutxieneko pertsonalarengatik.

Oro har, gutxieneko pertsonalarengatik kenkaria subjektu pasibo bakoitzeko 1.021 eurokoa izanen da urtean. Zenbateko horri kopuru hauek gehituko zaizkio:

a') 248 euro, hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina duten subjektu pasiboentzat. Zenbateko hori 551 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiagoko adina baldin badu.

b') 722 euro, desgaitasuna duten subjektu pasiboentzat, frogatzen badute ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa eta ehuneko 65ekoa baino txikiagoa dutela. Zenbateko hori 2.599 eurokoa izanen da subjektu pasiboak frogatzen duenean ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasuna duela.

c') 100 euro, zergaldian 30.000 euro baino gutxiagoko errentak, salbuetsiak barne, dituzten subjektu pasiboentzat.

b) Gutxieneko familiarrengatik:

Gutxieneko familiarrengatik kenkariak hauek izanen dira:

a') Subjektu pasiboarekin bizirik, urtean ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino errenta altuagorik, errenta salbuetsiak kenduta, jasotzen ez duen aurreko ahaide bakoitzeko, zenbateko hauetako bat:

Lehena. 249 euro, aurreko ahaideak hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina badu edo, gazteagoa izan arren, apartatu honetako c') letran aurreikusitako kenkariak aplikatzeko eskubidea badu.

Bigarrena. 551 euro, baldin eta aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiagoko adina badu.

Baldin aurreko ahaide horiek familia-unitate baten parte badira, letra honetan aurreikusitako errenta-muga izanen da, familia-unitate osorako, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) halako bi.

Ulertuko da subjektu pasiboarekin bizi direla zentro espezializatuetan bizi diren aurreko ahaideak, ekonomikoki haren menpekoak badira.

b') Lehena) Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, baldin eta subjektu pasiboarekin bizi bada eta ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino gehiagoko errentarik ez badu urtean jasotzen, salbuetsiak bazter utzirik:

– 455 euro urtean, lehenagatik.

– 483 euro urtean, bigarrenagatik.

- 690 euro urtean, hirugarrenagatik.
- 924 euro urtean, laugarrenagatik.
- 1.048 euro urtean, bosgarrenagatik.
- 1.213 euro seigarrenagatik eta ondokoengatik.

Aurreko zenbateko horiek orobat aplikatuko dira ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, haren adina zein ere den, baldin eta eskubidea ematen badu hurrengo c') letran aurreikusitako kenkariak baliatzeko.

Horrez gain, letra honetan ezarritako kenkariak aplikatzeko eskubidea ematen duen hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide bakoitzeko edo adoptatu bakoitzeko, 607 euro urtean. Zenbateko hori 1.103 eurokoa izanen da urtean, baldin eta, aplikatzekoak diren arau eta hitzarmenen arabera, nazioartekotzat jotzen diren adopzioak badira. Adopzio kasuetan, kasuko kenkaria aplikatuko da Erregistro Zibilean inskribatzen den zergaldian eta hurrengo bietan.

Bigarrena. Zergaldian 30.000 eurotik beherako errentak, salbuetsiak barne, dituzten subjektu pasiboentzat, 1. ordinaletako kenkariaren zenbatekoa, subjektu pasibo bakoitzari dagokiona, honako eskala hau aplikatuzetik suertatzen den zenbatekoan handituko da:

a) 20.000 euro arteko errentak dituzten subjektu pasiboak: ehuneko 40.

b) 20.000,01 eurotik 30.000 euro arteko errentak dituzten subjektu pasiboak: ehuneko 40, ken subjektu pasiboak 20.000 eurotik gora duen errenta-gaindikinak azken kopuru horrekiko egiten duen proportzioa 50ekin biderkatzearen emaitza.

Emaitza gisa lortzen den portzentajea bi dezi-maletara biribilduta adieraziko da.

Hirugarrena. Subjektu pasiboarekiko elkarbizitzaren parekotzat joko da haren ondorengo ahaideek haren duten menpekotasun ekonomikoa, salbu eta aplikatzekoa bada 59.3 artikuluan xedatutakoa.

c') Subjektu pasiboarekin bizi den ondorengo ahaide ezkongabe edo aurreko ahaide bakoitzeko, haien adina zein ere den, 635 euro urtean, aurreko letren arabera bidezkoak diren zenbatekoetz gain, baldin eta haiek urtean dituzten errentak, salbuetsiak kanpo, ez badira, kasuko zergaldian, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino handiagoak, desgaituak badira eta frogatzen badute ehuneko 33 edo gehiagoko eta ehuneko 65 baino gutxiagoko desgaitasun-gradua. Zenbateko hori 2.224 eurokoa izanen da

urtean, frogatutako desgaitasun-gradua ehuneko 65 edo gehiagokoa bada.

Aurreko ahaide horiek familia-unitate baten parte badira, aurreko paragrafoan aurreikusitako errenta-muga izanen da ondorio askotarako errenta-adierazle publikoaren (IPREM) halako bi, familia unitate osorako.

Aurreko b') eta c') letretan xedatutakoaren ondorioetarako, ondorengo ahaideekin parekatuko dira aplikatzekoa den legedi zibilean ezarritako terminoetan egindako tutoretza edo harrera kasuengatik subjektu pasiboarekin lotura duten pertsonak, aurreko edo ondorengo ahaide ez direnak. Ondorengo ahaideen parekotzat joko dira, halaber, nortzuk eta, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen garapen partzialerako Erregelamendua onetsi zuen urtarrilaren 19ko 7/2009 Foru Dekretuaren 50.1 artikuluan ezarritako baldintzak beterik, elkarbizitzaren jarraipena adin-nagusitasunera edo emantzipaziora arte harreran beren hartzaila izan zirenekin libreki adosten duten pertsonak. Gizarte-gaien arloko eskumena duen departamentuak eskaini beharko du egoera horren froga. Ondorengo ahaideekin parekatuko dira, halaber, subjektu pasiboak ebazpen judizial bidez esleiturik zaintza eta jagoletzaren araubidean dituen pertsonak, aurreko egoerez bestelakoetan daudenak.

Baldin bi subjektu pasibok edo gehiagok badute gutxienerako familiarrengatik kenkariak aplikatzeko eskubidea, horien zenbatekoa haien artean hainbanatuko da zati berdinetan, salbu eta b') bigarrena letran ezarritako igoera. Ondorengo ahaideei dagokienez berdin jokatuko da zaintza partekatuaren kasuetan.

Nolanahi ere, subjektu pasiboek ahaidetasun gradu desberdina baldin badute aurreko ahaidearekin edo ondorengoarekin, gutxienerako familiarrengatik kenkaria gradurik hurbilenera aplikatuko zaie, non eta horiek ez duten ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino gehiagoko errentarik (salbuetsiak alde batera utzita), kasu horretan hurrengo gradukoari aplikatuko baitzaie.

c) Ondorengo ahaideak, aurreko ahaideak, beste ahaide batzuk eta desgaitasuna duten pertsonak zaintzeagatik:

Kengarria izanen da subjektu pasiboak zergaldian ordaindu dituen kopuruen ehuneko 100, kopuru horiek dagozkienean honako pertsonak etxean zaintzeko lanetan diharduten pertsonekin formalizatutako kontratuen ondorioz enplega-

tzailearen kargura suertatzen diren Gizarte Segurantzarako kotizazioei:

a') Hamasei urte baino gutxiagoko ondorengo ahaideak. Ondorio hauetarako, ondorengo ahaideekin parekatuko dira aplikatzekoa den legedi zibillean ezarritako moduan egindako tutoretza edo harreragatik subjektu pasiboarekin lotura duten hamasei urte baino gutxiagokoak. Ondorengo ahaideekin parekatuko dira, halaber, subjektu pasiboak ebazpen judizialez zaintza eta jagoleztaren araubidean esleituak dituen pertsonak, aurreko egoerez bestelakoetan daudenak.

b') Subjektu pasiboari eskubidea ematen diotenak artikuluko honetako b) letrako a') edo c') letretan aurreikusitako gutxieneko familiarrarengatik kenkaria aplikatzeko, edo hamahirugarren xedapen iragankorrean ezarritako baldintzetan pertsona lagunduaren izaera duten ahaideengatik kenkaria aplikatzeko.

c') Aurreko ahaideak, ezkon-ahaidetasunekoak direnak; anai-arrebak; osaba-izebak. Betiere, artikuluko honen b) letrako a') edo c') letretan aurreko ahaideentzat ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Kenkari hori ere aplikatzen ahalko da subjektu pasiboa bera zaintzeko formalizatutako kontratuen kasuan, hirurogeita bost urte edo gehiago baditu edo ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasuna frogatzen badu".

Hamar. 62.10.b) Lehena artikulua, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuekin.

"Lehena. Enpresa- edo lanbide-jardueraren etekin garbia zehazten bada zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate sinplifikatuari edo modalitate bereziari heldurik, kuotako kenkaria bateraezina izanen da 36. artikuluko A.3 eta B.4 letretan aurreikusitakoak diren etekin garbiaren murriztapenekin".

Hamaika. 62.13 artikulua, d) letra aldatzea eta e) letra gehitzea, halako moldez non d) letraren egungo edukia e) letrara pasako baita, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuekin:

"d) Baldin subjektu pasiboaren errentak, salbuetsiak barne, ez badira zergaldian 30.000 euro baino gehiagokoak, a) letran ezarritako kenkari-portzentajeak honakoak izanen dira: ehuneko 35, ibilgailu elektrikoentzat; eta ehuneko 10, ibilgailu hibrido entxufagarrientzat. Baldin subjektu pasiboa familia-unitate baten kide bada, aipatu errenta-muga ez da 60.000 euro baino gehiagokoa izanen, eta familia-unitatearen osotasunari buruzkoa izanen da".

Hamabi. 68. artikulua A)4.Bigarrena eta B)4.Bigarrena, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuekin.

"Bigarrena. Letra honetan araututako kenkariak bateraezinak izanen dira errenta bermatuko prestazioak jasotzearekin, zeina araututa baitago inklusio sozialerako eta errenta bermaturako eskubideei buruzko azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legean, eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrerako prestazioak jasotzearekin, zeina araututa baitago maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege-dekretuan.

Hori hala izanik ere, prestazio horiek ez badira zergaldi osoan zehar jaso, prestazioak zenbat egunez ez diren jaso, horren proportzioan kalkulatu dira kenkariak".

"Bigarrena. Letra honetan araututako kenkariak bateraezinak izanen dira errenta bermatuko prestazioak jasotzearekin, zeina araututa baitago inklusio sozialerako eta errenta bermaturako eskubideei buruzko azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legean, eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrerako prestazioak jasotzearekin, zeina araututa baitago maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege-dekretuan.

Hori hala izanik ere, prestazio horiek ez badira zergaldi osoan zehar jaso, prestazioak zenbat egunez ez diren jaso, horren proportzioan kalkulatu dira kenkariak".

Hamahiru. 68. bis artikulua, 3. apartatua gehitzea, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuekin.

"3. Bateraezinak izanen dira artikuluko honetan arautzen den kenkaria eta maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege-dekretuan araututako bizitzeko gutxieneko diru-sarrera".

Hamalau. 68. quinquies artikulua, B.1.a) eta b) letraren lehen paragrafoa, eta C.5; 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuekin.

"a) Zergaldian ordaindutako errentamenduerrentaren ehuneko 50ekoa, baldin eta etxebizitza babestuen eskatzaileen erroldan izena emanda badago eskaera egiten den urteko urtarrilaren 1a baino lehenagotik, edo etxebizitza babestu baten errentaria bada administrazioak data hori baino lehenago bisatutako kontratua izanda.

b) Zergaldian ordaindutako errentamenduerrentaren ehuneko 60koa, baldin eta zergaduna errentamendurako gizarteratze-etxebizitzaren programako onuraduna bada, Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren 72. artikuluan edo haren ordezkoko dena delako arauan xedatutakoa-



ren arabera, eskaera egiten den urteko urtarrilaren 1a baino lehenagotik”.

“5. Aipatutako etxebizitzaren alokairu-prezioa ezin izanen da hilean 675 euro baino gehiagokoa izan”.

Hamabost. 71.1.a) eta b) artikulua, 2021eko irailaren 3tik aurrerako efektuekin.

“a) Legez bereizirik ez dauden ezkontideek eta, izanez gero, adingabeko seme-alabek osatua (gurasoen baimenarekin beraiengandik lokabe bizi direnak salbu); unitate horretan sartzen dira, halaber, kuradoretzaren menpe dauden adin nagusiko seme-alabak.

b) Legeria berekiaren arabera bikote egonkor batek eta, izanez gero, adingabeko seme-alabek osatua (gurasoen baimenarekin beraiengandik lokabe bizi direnak salbu); unitate horretan sartzen dira, halaber, kuradoretzaren menpe dauden adin nagusiko seme-alabak”.

Hamasei. 75. artikulua, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuekin.

“75. artikulua. Baterako tributazioaren arau bereziak.

Baterako tributazioaren kasuetan arau berezi hauek aplikatuko dira:

Lehena. 62.2. artikuluan aipatzen den errenten gehieneko zenbatekoa 60.000 eurokoa izanen da familia unitate osoarentzat.

Bigarrena. 64.1 artikuluan ezarritako muga familia unitateko kide guztien likidazio-oinarrien baturari aplikatuko zaio.

Hirugarrena. 64.2 artikuluan ezarritako muga familia unitateko kide guztien kuoten baturari aplikatuko zaio.

Laugarrena. 71.1.c) artikuluan aipatzen diren familia-unitateen kasuan, aitari edo amari dagoen gutxieneko pertsonalarengatik kenkaria, 62.9.a) artikuluan ezarria, 630 euro handituko da. Handitze hori ez da gertatuko aita eta ama elkarrekin bizi direnean, ez eta zaintza partekatua dagoenean ere”.

Hamazazpi. Bosgarren xedapen gehigarria 3, bigarren paragrafoa; 2021eko irailaren 3tik aurrerako efektuekin.

“Halaber, ulertuko da ehuneko 65 edo gehiagoko desgaitasun-gradua dutela mendekotasun-egoera bat edozein gradutan aitortua duten pertsonen”.

Hemezortzi. Hamargarren xedapen gehigarria, indargabetzea.

Hemeretzi. Hamahirugarren xedapen gehigarria. Errubrika eta 1. eta 3. atalak.

“Hamahirugarren xedapen gehigarria. Desgaitasuna duten pertsonen alde eratutako gizarte-aurreikuspeneko sistemetako ekarpenen eta prestazioen araubide fiskala”.

“1. Desgaitasuna duten pertsonen alde eratutako pentsio-planerako ekarpenei, baldin eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko estatu-araudian ezarritako betebeharrak, ezaugarriak eta baldintzak betetzen badituzte, bai eta haietatik heldutako prestazioei ere, honako araubide fiskal hau aplikatuko zaie:

a) Pentsio-plan horietara egiten diren ekarpenengatik murriztapena egiten ahalko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarriaren zati orokorrean, gehieneko muga hauek kontuan hartuta:

a’) Partaide bakoitzak desgaitasuna duten pertsonen alde egindako urteko ekarpenak, pertsona horiekin ahaidetasun- edo tutoretza-harremana dagoenean: 10.000 euro urtean.

Horrek ez die galarazten beren pentsio-plan propioei ere ekarpenak egitea, foru lege honen 55. artikulua ezartzen dituen mugen barranean.

b’) Partaide diren desgaitasundun pertsonen egintza urteko ekarpenak: 24.250 euro urtean.

Desgaitasuna duen pertsona berberaren aldeko ekarpenak egiten dituzten pertsona guztiek egindako murriztapenen osotasunak, desgaitasuna duen pertsonarenak berarenak barne, ezin izanen du urtean 24.250 euroko kopurua gainditu. Ondorio horietarako, desgaitasuna duen pertsona berberaren aldeko ekarpen bat baino gehiago dagoenean, murriztapena, aurrena, desgaitasuna duen pertsonak berak egindako ekarpenengatik egiten da, eta horiek ez badute gainditzen aipatutako 24.250 euroko muga, eta orduan bakarrik, egiten ahalko dute beren zerga-oinarrian murriztapena desgaitasuna duen pertsonaren alde beste pertsonen egin dituzten ekarpenek, betiere proportzionalki. Desgaitasuna duen pertsona berberaren aldeko ekarpenengatik beste pertsona guztiek egiten dituzten murriztapenen multzoak ezin izanen du 24.250 euroko kopurua ezein kasutan gainditu.

b) Desgaitasuna duten pertsonen errenta gisa jasotako prestazioetatik heldu diren lan etekinek, xedapen honetan aipatzen diren ekarpenei dagozkienek, zerga honetan murriztapena egiteko esku-bidea izanen dute, gehienez ere ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) halako hiru adinakoa urtean.

Desgaitasuna duten pertsonen kapital gisa jasotakoak diren prestazioen kasuan, xedapen honetan aipatzen diren ekarpenei dagozkienak badira, foru lege honetako 17.2 artikuluko b) eta c) letretan jasotako murriztapena ehuneko 60koa izanen da”.

“3. Desgaitasuna duten pertsonen alde eraturiko gizarte-aurreikuspeneko sistema hauetara egiten diren ekarpenei, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko estatu-araudian aurreikusitako pertsonen egindakoei, ez zaie aplikatuko oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga”.

Hogei. Berrogeita hamabosgarren xedapen gehigarria, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuekin.

“Berrogeita hamabosgarren xedapen gehigarria. Birgaitze-obrak.

1. Salbuetsirik egonen dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak birgaitze babestuko obretarako emandako dirulaguntza publikoak, Etxebizitzaren arloko jarduketak babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuan xedatuaren indarrez, baldin eta dirulaguntza horiek esleitzen bazaizkie zergaldian 30.000 euro baino gehiagoko errentarik (salbuetsiak kontuan hartu gabe) ez duten subjektu pasiboak.

Salbuetsirik egonen dira, halaber, beste administrazio publiko batzuegandik kontzeptu berberengatik jasotzen diren dirulaguntzak.

2. Errenta salbuetsizat joko dira, halaber, honako arauak xedatzen dutena aplikatuz emandako dirulaguntza publikoak: urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean sartutako etxebizitzaren birgaitzearen arloko laguntza-programak; abuztuaren 4ko 737/2020 Errege Dekretua, zeinaren bidez arautzen baita egungo eraikinen birgaitze energetikoko jarduketarako laguntza-programa, eta arautzen baita programa horretako laguntzak autonomia erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei zuzenean emateari dagokiona; eta abuztuaren 3ko 691/2021 Errege Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira egungo eraikinen birgaitze energetikoko jarduketarako eman beharreko dirulaguntzak, erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetarako birgaitze energetikoko programaren ildoan (PREE 5000 Programa)”.

Hogei bat. Berrogeita hemezortzigarren xedapen gehigarria indargabetzea, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuekin.

Hogei bi. Hirurogeita laugarren xedapen gehigarria gehitzea, 2022. urtean zeharreko efektuekin.

“Hirurogeita laugarren xedapen gehigarria. Etxebizitza bat alokairu-araubidean eskuratzea errazteko kenkaria 2022an.

2022. urtean zehar, honako hauek aplikatzen ahalko dute emantzipaziorako errentamenduagatik kenkaria, 68. quinquies. A artikuluan zehazten dena: Nafarroan erroldaturik egonda eta kenkariaren onuradun izateko gainerako baldintzak beteta, adinari dagokiona salbu, 2022ko urtarrilaren 1ean edo geroagoko data batean enplegu eskatzaile langabetu gisa inskribaturik agertzen diren pertsonen.

Kenkaria 2022ko abenduaren 31ra arte emanen da”.

Hogei hiru. Hirurogeita bosgarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hirurogeita bosgarren xedapen gehigarria. Etxebizitzaren energia-efizientzia hobetzeko obren-gatiko kenkaria.

1. Zergadunek zilegi izanen dute beren ohiko etxebizitzaren edo une horretan etxebizitza gisa erabilia izateko alokairuan emana nahiz alokagai duten beren jabetzako beste edozein etxebizitzaren berokuntza- eta hozkuntza-eskaria murrizteko asmoz 2022an eginiko obren-gatik urte horretan ordaindu dituzten kopuruen ehuneko 20 kentzea, baldin eta, azken kasu horretan, etxebizitza 2023ko abenduaren 31 baino lehenago alokatzaren bada.

Ondorio horietarako, etxebizitzaren berokuntza- eta hozkuntza-eskaria murriztu dela ulertuko da, soilik, ehuneko 7 murrizten bada, gutxienez ere, obrak egin ondoren teknikari eskudunak jaulkitako etxebizitzaren energia-efizientziari buruzko ziurtagirian jasotako berokuntza- eta hozkuntza-eskariaren adierazleen batura, obrak hasi aurretik jaulkitako ziurtagirikoekin alderatuta.

Kenkaria egingen da obrak egin ondoren eginiko energia-efizientziaren ziurtagiria jaulkitzen den zergaldian. Edozein kasutan, ziurtagiri hori 2023ko urtarrilaren 1a baino lehenago jaulki beharko da.

Kenkari horren gehieneko oinarria urteko 5.000 eurokoa izanen da.

2. Zergadunek zilegi izanen dute beren ohiko etxebizitzaren edo une horretan etxebizitza gisa erabilia izateko alokairuan emana nahiz alokagai duten beren jabetzako beste edozein etxebizitzaren energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa hobetzeko asmoz 2022an eginiko obren-

gatik urte horretan ordaindu dituzten kopuruaren ehuneko 40 kentzea, baldin eta, azken kasu horretan, etxebizitza 2023ko abenduaren 31 baino lehenago alokatzen bada.

Ondorio horietarako, obra horiek egin diren etxebizitzaren energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa hobetu dela ulertuko da, soilik, gutxienez ere ehuneko 30 murrizten denean energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoaren adierazlea, edo etxebizitzaren energia-kalifikazioaren hobekuntza bat lortzen denean, halako moldez non, kalifikazio-eskala berean, "A" edo "B" energia-klasea lortzen den, hori frogaturik obrak egin ondoren teknikari eskudunak jaulkitako energia-efizientziaren ziurtagiriaren bidez, obren hasiera aurretik jaulki zenarekin alderatuta.

Kenkaria eginen da obrak egin ondoren eginiko energia-efizientziaren ziurtagiria jaulkitzen den zergaldian. Edozein kasutan, ziurtagiri hori 2023ko urtarrilaren 1a baino lehenago jaulki beharko da.

Kenkari horren gehienezko oinarria urteko 7.500 eurokoa izanen da.

3. Nagusiki etxebizitza-erabilerakoak diren eraikinetan kokaturiko etxebizitzaren jabe diren zergadunek, baldin eta eraikin horietan 2022an eta 2023an energia-birgaitze obrak egin badira, zilegi izanen dute aipatu obregatik epe horretan ordaindutako kopuruaren ehuneko 60 kentzea. Ondorio horietarako, eraikinaren energia-birgaitze obratzat joko dira halakoak non etxebizitza kokatzen den eraikinaren energia-efizientzia hobetzea lortzen baita, eta frogatu egin beharko da, eraikinaren energia-efizientziaren ziurtagiriaren bitartez, zeina teknikari eskudunak jaulkiko baitu obrak egin direnean, energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoaren beherakada izan dela, energia-ziurtagirian jasoa eta gutxienez ere ehuneko 30ekoa edo, bestela, eraikinaren energia-kalifikazioa hobetu dela, kalifikazio-eskala berean "A" edo "B" energia-klasea lorturik, obren hasiera aurretik jaulkitako ziurtagiriarekin alderatuta.

Etxebizitzekin parekatuko dira haiekin batera erosiak diren garaje-plazak eta trastelekuak.

Ez dute kenkari hori egiteko eskubiderik emanen jarduera ekonomiko bati atxikita dagoen etxebizitza-zatian eginiko obrek.

Kenkaria 2022 eta 2023ko zergaldietan eginen da haietako bakoitzean ordaindutako kopuruari dagokienez, baldin eta jaulki egin bada, kenkaria eginen den zergaldia amaitu aurretik, energia-efizientziaren ziurtagiri aipatua. Ziurtagiria jaulkitzen denean obra horientzako kopuruak ordaindu ziren zergaldiaren ondorengo batean, kenkaria

eginen da ziurtagiria jaulkitzen den epealdian. Nolanahi dela ere, ziurtagiri hori 2024ko urtarrilaren 1a baino lehenago jaulki beharko da.

Kenkari horren gehienezko oinarria urteko 5.000 eurokoa izanen da.

Kenkariaren urteko gehieneko oinarria gainditzeagatik kendu gabe geratu diren kopuru ordainduak kentzen ahalko dira, muga berarekin, hurrengo lau ekitaldietan. Kenkariaren oinarri metatuak ezin izanen du ezein kasutan 15.000 euro gainditu.

4. Ez da eskubiderik egonen 1. eta 2. apartatuetan jasotako kenkariak egiteko, obra eginen denean jarduera ekonomiko bati atxikitako etxebizitza-parteetan, garaje-plazetan, trastelekuetan, lorategietan, parkeetan, igerileku eta kirol-instalazioetan eta antzeko beste elementu batzuetan.

Etxebizitza batean eginiko obra batek berak ez du ezein kasutan eskubiderik emanen 1. eta 2. apartatuetan jasotako kenkariak egiteko. Era berean, kenkari horiek ez dira aplikagarri izanen halako kasuetan non frogaturiko hobekuntza eta ordainduriko kopuruak eraikinaren osotasunean gauzaturiko ekimenen ondoriozkoak izan eta xedapen honen 3. apartatuan jasotako kenkaria aplikatzeko denean.

1, 2 eta 3. apartatuetan aurreikusitako kenkariaren oinarria osatuko dute kreditu- edo zordunketa-txartelez, banku-transferentziaz, izendun txkezez edo kreditu-erakundeetako kontuetara eginiko diru-sarrerara bitartez ordaindutako kopuruak, ordaindu zaizkienean obra horiek egiten dituzten pertsona edo entitateei eta aipatu ziurtagiriak jaulkitzen dituzten pertsona edo entitateei. Deskontatu beharrekoak izanen dira laguntza publikoen programa baten bitartez diruz lagunduak izan diren edo laguntza horiek emateko behin betiko ebazpen baten bidez lagunduak izatekoak diren zenbatekoak. Ezein kasutan ez dute kenkaria egiteko eskubiderik emanen legezko diruaren ematean bitartez ordaindutako kopuruak.

Ondorio horietarako, eginiko obregatik ordaindutako kopurutzat joko dira obrak egiteko beharrezkoak direnak, barne harturik lanbide-ordainsariak, proiektu teknikoak idaztearen kostuak, obra-zuzendaritzarenak, obra edo instalazioak egitearen kostuak, ekipamendu eta materialetan eginiko inbertsioak eta horien garapenerako beharrezkoak diren beste gastu batzuk, bai eta energia-efizientziari buruzko kasuko ziurtagirien jaulkipena ere. Nolanahi ere, kopuru horietan ez dira aintzat hartuko jatorri fosileko erregaiak darabil-

tzaten ekipamenduak instalatu edo ordezteko kostuak.

Jabe-erkidego batek eginiko obren kasuan, zergadun bakoitzaren kenkariaren oinarria osa dezakeen zenbatekoa, 3. apartatuan aipatua, suertatuko da jabe-erkidegoak ordaindutako kopuruei, aurreko paragrafoan aipatuei, partaidetza-koefizientea aplikatuzetik.

5. Aurreko apartatuetan aipatuta datozen energia-efizientziako ziurtagiriak jaulki eta erregistratuak izan beharko dira ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuari jarraikiz, zeinaren bidez onesten baita eraikinen energia-efizientiaren ziurtagiria egiteko oinarrizko prozedura.

Kenkari horiek egiteko eskatzen diren baldintzak betetzen direla frogatzeko, baliodun izanen dira obrak hasi aurretik jaulkitako ziurtagiriak, baldin eta ez bada bi urteko epea igaro jaulkipen dataren eta obra-hasieraren dataren artean.

6. Energiaren eta etxebizitzaren alorretan eskudun diren departamentuek informazioa helarazi beharko diote Nafarroako Foru Ogasunari energia-efizientziari buruzko ziurtagiri erregistratuei eta eman diren laguntzen ebazpen behin betikoei buruz, horiek eman direnean etxebizitzaren energia-efizientzia hobetzeko obregatik. Informazio horri gehituko zaizkio kasuko katastro-erreferentziako zenbakiak.

Tributu-alorrean eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez zehazten ahalko da zein den eman beharreko informazioa eta informatze-betebehar hori nola eta zer epetan bete behar den”.

**Hogeita lau.** Hogeita bederatzigarren xedapen iragankorra gehitzea, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuekin.

“Hogeita bederatzigarren xedapen iragankorra. Gerorapen araubidea aplikatzea inbertsio kolektiboko erakundeetako partizipazio edo akzio batzuei, 2022ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratuak badira.

52.2.a) Hirugarrena artikuluan ezarritako baldintza ez da aplikatuko 3. ordinal horretan aipatzen diren inbertsio kolektiboko erakundeetako partizipazio edo akzioen kasuan, zergadunak horiek 2022ko urtarrilaren 1a baino lehenago eskuratu baditu eta Espainiako balore-burtsa batean kotizatu gabeak badira, baldin eta diru-itzulketaren edo eskualdaketa zenbatekoa ez bada erabiltzen aipatutako ordinalean aurreikusten diren inbertsio kolektiboko erakundeetako akzioak edo partizipazioak eskuratzeko”.

**Hogeita bost.** Hogeita hamargarren xedapen iragankorra gehitzea, 2021eko irailaren 3tik aurrerako efektuekin.

“Hogeita hamargarren xedapen iragankorra. Epai bidez ezgaitutako pertsonak, 8/2021 Legeak indarra hartu aurretik emandako epaien bidez luzatu edo berriz gaitutako guraso-ahalaren menpe daudenak.

Desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoaz baliatzen laguntze aldera legeria zibila eta prozesala aldatzen duen 8/2021 Legeak, ekainaren 2koak, daukan bosgarren xedapen iragankorra aplikatzearen ondorioz mantendu egiten direnean halako egoerak non epai bidez ezgaituta dagoen norbait guraso-ahalaren menpe baitago, guraso-ahal hori lege horrek indarra hartu aurretik emandako epaien bitartez luzatua edo birgaitua izanik, orduan foru lege honen 71.1. artikuluko a) eta b) letrak eta bosgarren xedapen gehigarriko 3. ataleko bigarren paragrafoa aplikatuko dira, 2021eko irailaren 2an indarrean dauden zertzeladekin”.

**Bigarren artikulua.** Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen agindu hauek aldatzen dira, eta ondoren azaldutako testua izanen dute:

**Bat.** 12.1 b) artikulua, lehen paragrafoa, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako efektuekin.

“b) Aurreko a) letran adierazitako baldintza betetzen ez duten entitateek ez izatea enpresaren % 25etik gorako partaidetzarik, ez zuzeneko ez zeharkakorik, salbu eta kapital-arriskuko sozietateak edo funtsak edo partaidetzazko sozietate publikoak badira, partaidetza izanik entitate horien xede soziala betetzearen ondorio”.

**Bi.** 23.3. artikulua, f) letra gehitzea.

“f) Apartatu honen ondorioetarako, turismoko ibilgailu, atoi, ziklomotor eta motozikletatzat joko dira Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra onesten duen abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren II. eranskinean halakotzat definitzen direnak, bai eta eranskin horretan ibilgailu mistotzat definitzen direnak ere; eta, kasu guztietan, lur orotako ibilgailu deitutakoak, 'jeep' edo 'pick up' motakoak”.

**Hiru.** 23. bis artikulua, 13. apartatua gehitzea, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitakoak izanik 2021eko otsailaren 27an bukatu gabe zeuden zergaldietarako efektuekin.



“13. Aurreko apartatueta ezarritakoa ez da aplikatuko asimetria hibridoa gertatzen denean onuraduna zerga ordaintzetik salbuetsita egoteagatik, edo tributu-araubide berezi baten menpeko tresna edo kontratu finantzario batean oinarritutako eragiketa edo transakzio baten barruan sortzen denean, ez eta balio egotziaren diferentzia eratorzen denean balorazio-diferentzietatik, barne harturik eragiketa lotuen gaineko araudiaren aplikazioaren ondoriozkoak”.

Lau. 37.2 artikulua, lehen paragrafoa, eta 4. apartatua.

“2. 1. apartatuan xedatutakoa ez da aplikatuko berrinbertsioaren xedeko ondare-elementuak pertsona edo entitate lotu batengandik eskuratzen diren kasuan, non eta ez diren ibilgetu materialeko elementu berriak edo ondasun higiezinak inbertsioak”.

“4. Ibilgetu materialeko ondare elementuei eta ondasun higiezinak inbertsioei dagokienez, funtzionamenduan sartzen diren unean egindakotzat joko da berrinbertsioa; aldiz, ibilgetu ukiezineko ondare elementuei dagokienez, eskuratze-egunean”.

Bost. 61.6. artikulua, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako efektuekin.

“6. Artikulu honetan araututako kenkaria baliatu nahi duten zergadunek 5. apartatuan aipatzen den proiektua aurkeztu beharko diote Nafarroako Gobernuaren berrikuntza eta teknologiaren arloko eskumena duen organoari, bai eta proiektua esplikatzen duen oroitidazki bat ere, non xeheki jasoko baita proiektuari atxikita dauden gastuen aurrekontua eta gastuok zer aldiri egotziko zaizkion.

Aurkeztutako dokumentazioan oinarrituta, Nafarroako Gobernuaren berrikuntza eta teknologiaren arloko eskumena duen organoak txosten bat jaulkiko du, adieraziko duena ea jarduera horiek betetzen ote dituzten kenkarirako eskubidea ematen duten betebeharrak eta baldintzak.

Txostena eskatu ondoren, zergadunak bere autolikidazioan kontsignatuko du kasuko kenkaria.

Ulertuko da kenkaria sortu dela gastuak egin diren zergaldian, salbu eta txostena egiteko eskara aurkeztu aurreko bi zergaldietan egindako gastuak direnean, horrelakoetan ulertuko baita eskara aurkeztu den zergaldian sortu dela. Dena den, entitateak zilegi du kenkariaren aplikazioa atzeratzea aurkezpen-epea txosten-jakinazpenaren ostean amaitzekoa duen lehenengo autolikidaziora arte. Kasu horretan ulertuko da kenkaria sortu dela autolikidazio horri dagokion zergaldian.

Txostenaren kalifikazioa negatiboa bada osorik edo partzialki, entitateak erregularizazioa egin beharko du aurkezpen-epea txostena jaso ondoren amaitzekoa duen lehenengo autolikidazioan, eta kalifikazio horren arabera oker egindako kenkariak itzuli egin beharko ditu, berandutze-interesak barne”.

Sei. 61. artikulua, 7. apartatua aldatzea eta 9. apartatua gehitzea. Horren ondorioz, orain 7. eta 8. apartatuen edukia dena, aurrerantzean 8. eta 9. apartatuena izanen da. 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu efektuak.

“7. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarik jasotzen ez duten proiektuen kasuan, beharrezkoa izanen da, kenkaria sortzeko, 75. artikuluan ezarritako aitorpen-aurkezte epean helaraztea aitorpe-nean jasotako kenkariari dagozkion gastuen frogagiriak.

Aipatu dokumentazioa horretarako epean ez aurkezteak berekin ekarriko du zergaldi horri dagokion kenkaria egiteko eskubidea galtzea”.

Zazpi. 65. artikulua, errubrika, 1.a) eta 2. apartatuen lehen paragrafoa, 3. apartatua; halaber, 6.b) apartatuaren 3. eta 4. ordinalen indargabetzea. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu efektuak.

“65. artikulua. Pelikula zinematografikoetan eta ikus-entzunezko beste lan batzuetan egindako inbertsioengatik kenkaria”.

“1.a) Pelikula zinematografikoen eta ikus-entzunezko beste lan batzuen (fikziokoak, animazioak edo dokumentalak) espainiar ekoizpenetan egindako inbertsioek, jendaurreratu aurretik euskarri fisiko bat egitea ahalbidetzen dutenek, ekoizleari eskubidea emanen diote kuota likidoan ehuneko 35eko kenkaria egiteko”.

“2. Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuko Enpresa Zinematografikoen Erregistro Administrazioan erregistratuta dauden ekoiztetxeek, film zinematografikoen edo ikus-entzunezko beste lan batzuen ekoizpenaren gauzatzear arduratzen direnek, 1.d) apartatuan aipatzen den kultur izaera frogatzen duen ziurtagiria dutenek, eskubidea izanen dute Nafarroako lurraldean egindako gastuen ehuneko 35eko kenkaria aplikatzeko kuota likidoan. Kenkari hori aplikatu ahal izateko, ekoizpenean gutxienez ere astebeteko filmatzea egin beharko da Nafarroako barnealde edo kanpoaldeetan, salbu eta behar bezala justifikatutako inguruabarrengatik epea laburragoa denean, Nafarroako Foru Komunitatean egin ezin izateagatik”.



“3. Artikulu honetan arautzen diren kenkarien zenbatekoa, zergadunak ekoizpen bakoitzarengatik jasotako gainerako laguntzak gehituta, ez da izanen ekoizpen kostuaren ehuneko 50 baino handiagoa. Halere, muga hori honela handituko da kasu hauetan:

a) Ehuneko 85eraino, film laburrak direnean.

b) Ehuneko 80raino, zinema-aretoen bitartezko ustiapen komertzialerako kalifikazioa duten bi film luze baino gehiago zuzendu ez dituen edo kozuzendu ez dituen pertsona baten zuzendaritzapekoak izanik ekoizpen-aurrekontua 1.500.000 euro baino gehiagokoa ez duten ekoizpenak direnean.

c) Ehuneko 80raino, osorik euskaraz filmatutako ekoizpenak direnean.

d) Ehuneko 80raino, organo eskudunak aitorturiko ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun-gradua duten pertsonen bakar-bakarrik zuzendutako ekoizpenak direnean.

e) Ehuneko 75eraino, emakumezko zuzendari bakarrak egindako ekoizpenak direnean.

f) Ehuneko 75eraino, balio kultural eta artistiko berezia duten eta salbuespenezko finantzatzelaguntza behar duten ekoizpenak direnean, foru agindu bidez edo kasuko laguntza-deialdietan ezartzen diren irizpideen arabera.

g) Ehuneko 75eraino, dokumentalak direnean.

h) Ehuneko 75eraino, ekoizpen aurrekontua 2.500.000 euro baino gehiagokoa ez duten animazio-lanak direnean.

i) Ehuneko 60raino, Europar Batasuneko estatu kide batek baino gehiagok finantzatzen eta Europar Batasuneko estatu bat baino gehiagoko ekoizleen parte-hartzea duten mugaz gaindiko ekoizpenak direnean.

j) Ehuneko 60raino, Iberoamerikako herrialdeen egindako nazioarteko koprodukzioak direnean”.

Zortzi. 65. bis artikulua, errubrika, 1. apartatuaren lehen paragrafoa, 2. apartatua, eta 3. apartatuaren lehen paragrafoa eta b) letra; 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu efektuak.

“65. bis artikulua. Pelikula zinematografikoen eta ikus-entzunezko beste lan batzuen ekoizpenean parte hartzea”.

“1. Zerga honen edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek, establezimendu iraunkor baten bitartekaritza jarduten badute, eta

parte hartzen badute 65.1 artikulua ezarritako kenkarirako eskubidea sortzeko baldintzak betetzen dituzten beste zergadun batzuek eginiko film zinematografikoen edo ikus-entzunezko beste fikzio edo animazioko lan batzuen nahiz dokumentalen espainiar ekoizpenen, jendaurreratuak izan aurretik euskarri fisiko bat egiteko modua ematen dutenen, finantzaketan, eskubidea izanen dute kuota likidoan kenkari bat egiteko, artikulua honetan ezarritako baldintzekin eta betekizunekin. Kenkari hori bateraezina izanen da, osoki edo partzialki, aipatu 65.1 artikuluan xedatua aplikatzearen ondorioz beste zergadun horiek eskubidez egin ahalko lituzketen kenkariekin”.

“2. Ulertuko da zergadun batek parte hartzen duela beste zergadun batek egiten duen ekoizpen baten finantzaketan, mailegu gisa diru kopuruak jartzen dituen ekoizpenaren kostuak osoki edo partzialki ordaintzeko.

Jarritako diru kopuru horien itzulketa egingen da finantzaketan parte hartzen duen zergadunari kontratuaren eta 65.1 artikulua arabera dagozkion kenkarien bitartez.

Ez da onartuko ekoizpenaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunaren posizioan subrogatzerik, oinordetza unibertsalaren kasuetan izan ezik”.

“3. Artikulu honetan ezarritakoa aplikatzeko, nahitaezkoa izanen da bai ekoizpena egiten duen ekoiztetxeak bai haren finantzaketan parte hartzen duen edonork ere finantzaketa-kontratu bat sina dezaten, non, besteak beste, honako xehetasunak jasoko baitira:”

“b) Ekoizpenaren deskribapena”.

Bederatzi. 66. artikulua, indargabetzea; 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu efektuak.

Hamar. Hirugarren xedapen gehigarria, 2.g); 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izanen ditu efektuak.

“g) 58. artikuluko kenkaria ehuneko 10 handituta aplikatzen ahalko dute, baldin eta jarduera berritzaile bat egiten badute, edo bereziki sustatu nahi den sektore batekoa edo espezializazio adimentsukoa denean”.

Hamaika. Hamaseigarren xedapen gehigarria, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako efektuak izanen dituena.

“Hamaseigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Foru Diputazioaren Erabakia, 1972ko irailaren 1ekoa.

1. Nafarroako autobidea eraiki, kontserbatu eta ustiatzeko oinarrien pleguak onesteko Nafarroako Foru Diputazioaren 1972ko irailaren 1eko Erabakian ezarritako onura fiskalak ez dira aplikatuko 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan.

2. Erabaki horretan aurreikusitakoarekin bat zerga horren salbuespena izan duten mozkinetatik heldu diren dibidenduek ez dute 35. artikuluko salbuespenerako eskubidea emanen”.

**Hamabi.** Hamazazpigarren xedapen gehigarria, errubrika.

“Hamazazpigarren xedapen gehigarria. 2022an hasten diren zergaldietan likidazio oinarri negatiboak murrizteko mugak”.

**Hirugarren artikulua.** Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren testu bategina.

Abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren testu bategineko manu hauek testu hau izanen dute:

**Bat.** 3. artikuluari 5. apartatua gehitzea.

“5. Zerga honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako:

a) Familia-harrera iraunkorren edo adopzio aurreko bizikidetzarako zaintzan dauden pertsonak adoptatuen parekotzat joko dira.

b) Familia-harrera iraunkor bat egiten duten pertsonak edo adopzio aurreko bizikidetzarako zaintza eskuordetuta dutenak adoptatzaileen parekotzat joko dira.

Familia-harrera iraunkorra edo adopzio aurreko bizikidetzarako zaintza frogatu egin direla joko da Foru Komunitateko, Estatuko Administrazioako edo dagokion autonomia erkidegoko organo eskudunek horren ziurtagiria jaulkitzen dutenean”.

**Bi.** 11.c) artikulua, lehen paragrafoa, a’) letra kentzea eta azken paragrafoa aldatzea.

“c) Hildako pertsonaren ezkontide edo bikotekide egonkorak eginiko 'mortis causa' eskurapeanak, enpresa indibidual batenak, negozio profesional batenak edo entitateetako partizipazioenak, edo bestela, hildakoaren ohol-ahaideek eginak, aurrekoek nahiz ondorengoek, bi kasuetan edozein gradutakoek, edo hirugarren gradurainoko albo-ahaideek eginak, bai eta hildakoaren adoptatu nahiz adoptatzaileek eginak, pertsona horiei aplikatzekoa bazaie Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 5.8 artikuluan arautzen den salbuespena. Salbue-

tsita egonen da, orobat, haien gaineko gozamen eskubideak herentzia bidez eskuratzea”.

“Ondorio horietarako, ulertuko da enpresa indibiduala edo negozio profesionala dela Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 37. artikuluan aipatzen diren enpresa-jarduerei edo jarduera profesionalei atxikitako ondare-elementuen multzoa”.

**Hiru.** 12.d) artikuluko a’ eta b’)1.

“a’) Partizipazioei dagokienez: Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen 5.8. Bi artikuluan jasotako baldintzak bete behar dira”.

“1. Enpresa- edo lanbide-jardueran ohikotasunez, pertsonalki eta zuzenean aritu izana eskualdaketa-egunaren aurreko bost urteetan zehar edo, letra honetan adierazitako erakundeetako partizipazioak direnean, eskualdatzaileak horiek eskuratu izana eskualdaketa baino bost urte lehenago eta erakundeak jarduera epe horretan egin izana”.

**Lau.** 52. bis artikulua gehitzea.

“52. bis artikulua. Ezkontza-sozietatearen ondasun komunak dohaintzan ematea.

Bi ezkontideek ezkontza-sozietatearenak diren ondasun komunak dohaintzan ematen dituztenean, bi dohaintza daudela ulertuko da”.

**Laugarren artikulua.** Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren testu bategina.

Apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko testu bateginaren honako arau hauek testu hau izanen dute:

**Bat.** 10.4.c) artikulua.

“c) Aurreko bi erregelaren horien ezean, interesdunek aitortutako balioa, ezertan galarazi gabe Administrazioak horren egiaztapena egiteko daukan eskubidea, 36. artikuluko bitartekoen bidez gauzatua”.

**Bi.** 12.4. artikulua.

“Sozietateen eragiketen gaineko kargaren ondorioetarako, berregituraketa-eragiketatzat hartuko dira sozietateen bat-egiterako, banantzeko, aktiboen ekarpena egiteko eta baloreak trukatzeko eragiketak, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 116. artikuluko 1., 2., 3. eta 5. apartatuetan eta 117. artikuluan definitutakoak”.

Hiru. 20. bis 1. artikulua.

“1. Berme-eskubide errealetan eta bermedun maileguak dokumentatzen dituzten eskrituretan, zerga-oinarria osatuko du betebeharrak edo kapital bermatuaren zenbatekoak, zeinak barne hartuko baititu interesengatik, kalte-ordainengatik, urraketengatik zigorrengatik edo antzeko kontzeptuengatik aseguratzen diren zenbatekoak ere. Bermatutako zenbatekoa berriaz agertzen ez bada, kapitala eta hiru urteko interesak hartuko dira zerga-oinarritzat.

Hipoteka-maileguen subrogazio-eragiketak eta aldatze-nobaziorako eragiketak dokumentatzen dituzten eskritura publikoetan, zerga-oinarria izan da betebeharrak edo kapital bermatuak eskrituraren datan amortizakizun daukan zenbatekoa, barne harturik interesengatik, kalte-ordainengatik, urraketengatik zigorrengatik edo antzeko kontzeptuengatik aseguratzen diren zenbatekoak ere.

Hipoteken edo beste edozein berme-eskubideen posposizioan eta maila-hobekuntzan, zerga-oinarria osatuko du maila okerragoan gelditzen den eskubideari esleitutako erantzukizun osoak. Maila-berdinketan, lehenbizi ezarritako berme-eskubideari dagokion erantzukizunaren guztizko zenbatekoak zehaztuko du zerga-oinarria”.

Lau. 35.I.B artikulua, 16. apartatuko bigarren paragrafoa, 22. apartatua eta 25.3 apartatuko bigarren paragrafoa.

“Onura hori izateko, ezinbesteko baldintza izan da eskualdatzailearen, eskuratzzailearen edo errentariaren artean zuzeneko nahiz zeharkako lotura-harremanik ez egotea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 28. artikuluan aurreikusitakoarekin bat”.

“22. Desgaitasuna duten pertsonen honako ondare babestu hauetara egindako ekarpenen formalizazioa: araututa dauden azaroaren 18ko 41/2003 Legean, Desgaitasuna duten pertsonen ondarea babestu eta, xede horrekin, Kode Zibila, Prozedura Zibileko Legea eta zerga-arloko araudia aldatzekoan, eta Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilararen Konpilazioan”.

“Orobat, erakunde horiek ehuneko 95eko hoberia izan daiteke zerga honen kuotan, alokairurako etxebizitzak eskuratzeko eta alokairurako etxebizitzak sustatzeko lursailak eskuratzeko, baldin eta, bi kasu horietan, ondasun higiezin mantentze-lanen gaineko betebeharrak berriazkoak betetzen badituzte, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 51.5 artikulua b) eta c) letretan ezarriak, salbu

eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak berriazko baimen ezohikoa ematen duenean”.

Bost. 35.I.B artikulua, 33. apartatua gehitzea. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu efektuak.

“33. Lehen. 24/2021 Errege Lege-dekretuak, azaroaren 2koak, arautzen dituen hipoteka-eskualdaketako ziurtagirien eta hipoteka-partizipazioen eta bonu bermatuen jaulkitze, eskualdatze, amortizatze eta diru-itzultze. Errege Lege-dekretu horren bidez Europar Batasunaren zuzentzarauen transposizioa egiten da arlo hauetan: bonu bermatuak, inbertsio kolektiboko erakundeen mugazgandiko banaketa, datu irekiak eta sektore publikoko informazioaren berrerabilera, autore-eskubideen egikaritzea eta lineako transmisio batzuei nahiz irati- eta telebista-programen emaldi batzuei aplikatzekoak zaizkien kideko eskubide batzuen egikaritzea, inportazio eta hornidura jakin batzuentzako aldi baterako salbuespenak, kontsumitzaileak, eta errepidezko garraioko ibilgailu garbi eta energetikoki efizienteen sustapena.

Bigarrena. Entitate jaulkitzailearen konkurtsoaren kasurako aurreikusita dagoen ondare berezia eratzeko aktibo-eskualdaketak eta maileguak beste kreditu-entitate bati eskualdatzea jaulkipenak batera finantzatzeko, azaroaren 2ko 24/2021 Errege Lege-dekretuaren 14. artikuluari jarraikiz”.

Sei. 35.II.10 eta 13 artikulua.

“10. Martxoaren 30eko 2/1994 Legea, hipoteka-maileguen subrogazioari eta aldaketari buruzkoa”.

“13. Zenbait zerga hein batean aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 29ko 25/1994 Foru Legearen 11. artikulua, elkar bermatzeko sozietateek egindako zenbait eragiketari dagokienez”.

Zazpi. 35:II artikulua, 8. eta 26. apartatuak indargabetzea. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

**Bosgarren artikulua.** Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren agindu hauek honako testu hau izanen dute:

Bat. 9.1.h) artikulua.

“h) Eskubidea du, legeetan aurreikusitako moduan, Zerga Administrazioak lortu dituen datu, txosten edo aurrekarien sekretutasuna errespetatzen dadin. Horiei eman ahalko zaien erabilera bakarra

da Administrazioak kudeaketa esleitua daukaneko tributu edo balia bideak aplikatzea, eta ezin izanen zaizkie hirugarrenei laga edo jakinarazi, legeetan aurreikusitako kasuetan izan ezik”.

Bi. 27.5.i) artikulua.

“i) Ekoizleek, merkaturatzaileek eta erabiltzaileek betebeharrak hau dute: jarduera ekonomikoak egiten dituztenen kontabilitate-, fakturazio- edo kudeaketa-prozesuen euskarri diren sistema eta programa informatikoen edo elektronikoen erregistroen osotasuna, kontserbazioa, eskuragarritasuna, irakurgarritasuna, trazabilitatea eta aldaezintasuna berma ditzaten, sistemetan bertan egokiro jasota geratu gabeko interpolazio, omisio edo aldaketarik gabe. Erregelamendu bidez ezartzen ahalko dira sistema eta programa horiek bildu behar dituzten espezifikazio teknikoak, bai eta horiek behar bezala ziurtatuta egoteko eta irakurtzeko formatu estandarrek erabiltzeko betebeharrak ere”.

Hiru. 68.g)c’) eta e’) artikulua.

“c’) Egindako idatz-oharrekin bat ez datozen transakzioen erregistroa ahalbidetzea”.

“e’) Ez betetzea erregistroen osotasuna, kontserbazioa, eskuragarritasuna, irakurgarritasuna, trazabilitatea, aldaezintasuna eta Zerga Administrazio organo eskudunentzako irakurgarritasuna bermatzen duten espezifikazio teknikoak, 27.5.i) artikulua araberak”.

Lau. 103.1.d) artikulua.

“d) Indarreko araudiaren aplikazioaren ondorioz akzioen amai-onuradunen identifikazioa ezagutzen duten edo ezagutzeko moduan dauden pertsonak eta entitateak behartuta egonen dira identifikazio horri dagokionez erregelamenduz ezartzen diren informazio-eskakizun edo betebeharrak betetzera Zerga Administrazioarekiko”.

Bost. 116.4 artikulua.

“4. Borondatezko epean ordainketa geroratu, zatikatu edo konpentsatzeko eskaera bat aurkeztuz gero, espediente horiek tramitatu bitartean ezin izanen da epe exekutiboa hasi.

Aipatutakoa gorabehera, aurreko paragrafoan adierazitako eskaerak, eta eteteko eta gauzatan ordaintzeko eskaerak ere, ez dute eragotziko epe exekutiboa hastea, baldin eta lehenago, tributu-zor berari dagokionez, ukatu egin bada borondatezko epean geroratzeko, zatikatzeko, konpentsatzeko, eteteko edo gauzatan ordaintzeko aurretiazko beste eskaera bat, gertaturik ez, ordainketa egiteko beste epe bat irekita, ordainketa hori ez dela egin.

Epe exekutiboan, geroratzeko, zatikatzeko edo konpentsatzeko eskaerak aurkezteak zilegi izanen da ondasun enbargatuak besterentzeko erabakia zergapekoari jakinarazten zaion arte. Eskaera horiek epe exekutiboa hasi ondoren aurkezteak ez du eteteko ondorioz ekarriko, eta diru-bilketako organoak hasiera edo jarraipena eman beharko dio premiamendu prozedurari. Halere, ondasun enbargatuak besterentzeko jarduketak eten beharra egonen da eskaerari ezezkia ematen dion ebazpena jakinarazi bitartean.

Zehapen baten kontra errekurso edo erreklamazioa garaiz eta forman aurkezteak eragotzi egiten du epe exekutiboa hastea, harik eta zehapena administrazio bidean irmo bilakatu eta borondatez ordaintzeko epea bukatzen den arte.

Konkurso-deklarazioak ez du etenik eraginen maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuz onetsitako Konkursu Legearen testu bateginaren arabera konkursu-kalifikazioa duten zorrak ordaintzeko borondatezko epean, horrek ezertan galarazi gabe epe exekutiboko jarduketak testu bategin horretan xedatutakoari jarraitzea”.

Sei. 131.2 artikulua.

“2. Ikuskapen-jardueretarako beharrezkoa baldin bada, tributu-ikuskapeneko lanak egiten dituzten funtzionarioek zilegi izanen dute, erregelamenduz zehaztutako baldintzetan, sartzeari finketan, negozio-lokaletan eta bestelako establezimendu edo tokietan, baldin haietan karga-tasadun jarduerak edo ustiapenak egiten badira, zergapeko ondasunak badaude, zergapeko egintzak edo tributu-betebeharren iturri diren kasuak gertatzen badira edo horien frogaren bat baldin badago.

Aurreko paragrafoan aipatutako tokien zaintza duen pertsonak ez badu onartzen tributu-arloko ikuskapeneko funtzionarioak sar daitezela, beharrezkoa izanen da erregelamenduz zehazten den agintaritzaren administrazioaren idatzizko baimena.

Ikuskapen-zereginak betetzean beharrezko gertatzen bada zergapekoaren egoitza konstituzionalki babestuan sartzeari edo bertan erregistroak egitea, Zerga Administrazioak haren adostasuna edo epailearen baimena lortu beharko du.

Aipatutako egoitzan sartzeko baimen judizialerako eskaera behar bezala justifikatuta egon beharko da, eta egoitzan sartze horren helburua, premia eta proportzionaltasuna arrazoitu beharko ditu.

Baimen judiziala kasuko prozeduraren hasiera formalaren aurretik ere eska nahiz eman daiteke, baldin eta organo judizialari zuzendutako eskaerak

ran jasota badaude zergapekoaren identifikazioa, kontzeptuak eta egiaztatuko diren epealdiak”.

Zazpi. 168.7. artikulua, bigarren paragrafoa.

“Artikulu honetan aurreikusten den erantzukizun-deklaratzeko prozedura tramitatzen den bitartean hartutako kautelazko neurriei 118.6.e) artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko zaie”.

Zortzi. 169.4 artikulua.

“4. Europar Batasuneko ordenamenduaren arabera estatu-laguntza diren onura fiskalak ezin izanen dituzte jaso legez kanpoko eta barne merkatuarekin bateraezin deklaraturako estatu-laguntzak jaso dituztenek, berreskuratze-agindua oraindik betekizun dutelarik Batzordeak harturiko erabaki baten ondoren, harik eta laguntza horien izulketa gauzatu arte”.

Bederatzi. Hamargarren xedapen gehigarria, 4. apartatua.

“4. Emandako identifikazio fiskaleko zenbakia-  
ren errebokatzeko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzearekin, zenbaki horrek galdu eginen du arlo fiskalean identifikatzeko baliozkotasuna.

Era berean, argitalpen horrek eraginen du kreditu entitateek ez egitea kargurik edo ordainketarik titular edo baimendu gisa zenbaki errebokatu horien titularrak ageri diren banku-kontu edo -gordailuetan, salbu eta identifikazio fiskaleko zenbakia birgaitzen bada.

Errebokazioa entitate baten identifikazio fiskaleko zenbakiarena denean, hura Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeak berekin ekarriko du notarioak inolako tresna publikorik ez baimentzea, gaitzat dituenik borondate-deklarazioak, adostasun-ematea biltzen duten egintza juridikoak, kontratuak eta edozein motatako negozio juridikoak; ekarriko du, halaber, edozein erregistro publikotara sartzeko debekua, erregistro administratiboak barne, salbu eta identifikazio fiskaleko zenbakia birgaitzen bada. Errebokatzeko ukitzen duen entitatearen izena emanik dagoen erregistro publikoak, kasuko entitate motaren arabera, orri-bazterreko ohar bat idatziko du entitate horri irekitako orrian, eta ohar horretan adieraziko da aurrerantzean ezin izanen dela egin entitateari buruzko inolako inskripziorik, salbu eta identifikazio fiskaleko zenbakia birgaitzen bada.

Salbuespen gisa, onartuko da aurreko paragrafoan aipatzen den orri-bazterreko oharra kentzeko ezinbesteko tramiteak egitea.

Era berean, zenbaki errebokatuaren titular den entitatearen erregistro-ziurtagiri guztietan ageri beharko da zenbakia errebokaturik dagoela.

Apartatu honetan xedatutakoak ez dio Zerga Administrazioari eragotziko betekizun dirauten tributu-betebeharren betetzea exiji dezan. Halere, identifikazio fiskaleko zenbaki errebokatu bat agertzen duten autolikidazio, aitorten, komunikazio edo idazkien onarpena baldintzaturik egonen da, erregelamenduz adierazitako zertzeladekin, aipatu identifikazio fiskaleko zenbakia birgaitzeari”.

Hamar. Hemeretzigarren xedapen gehigarria, bigarren paragrafoa.

“Ondorio horietarako, zilegi izanen dute 103., 104. eta 123. artikuluetan aurreikusitako ahalmenak erabiltzea, delituarekin zerikusia duten pertsonen ondare-egoerari buruzko txostenak egitea eta 118. artikuluko 8. apartatuan aurreikusitako kautelazko neurriak hartzea”.

Hamaika. Hogeita batgarren xedapen gehigarria. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu efektuak.

“Hogeita batgarren xedapen gehigarria. Bikote egonkorrek ezkontideekin parekatzea.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, ondarearen gaineko zergaren, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren, ondare eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren araudian ezarritakoaren ondorioetarako, bikote egonkor bateko kideak ezkontideekin parekatuko dira, honako baldintza hauek betez gero:

Lehena. Bikote egonkor bat osa dezatela, aplikatzeko zaien araudi zibilean xedatutakoarekin bat.

Bigarrena. Apirilaren 14ko 27/2021 Foru Dekretuan arautzen den Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean inskribatuta egon daitezela, edo aplikatzeko zaien araudiaren arabera dagokien erregistroan, baita araudi horrek inskribatuak egoteko betebeharrak ezartzen ez duenean ere”.

Hamabi. Hogeita hamaseigarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hogeita hamaseigarren xedapen gehigarria. Jurisdikzio ez-lagungarritzat hartzea eta arauaipamenak.

1. Jurisdikzio ez-lagungarritzat hartuko dira lurralde erkideko araudiak halakotzat definitzen dituenak.

2. Zerga arloko foru araudian paradisu fiskalez, egiazko informazio trukerik gabeko herrialde edo lurraldeez edo tributaziorik gabeko edo tributazio



apaleko herrialde edo lurraldeez egiten diren aipamenak jurisdikzio ez-lagungarriaz eginikotzat ulertuko dira.

3. Tributu-informazioaren trukea edo tributu arloko trukea mantentzen duten estatuei buruz egiten diren arau-aipamenak egintzat ulertuko dira tributu-informazioaren trukearen arloan elkarrekiko laguntzari buruzko araudikide diren estatuei buruz”.

Hamahiru. Hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarria. Tributu-zorra geroratzeko edo zatikatzeko 2022an zehar eginiko eskaerei aplikatu beharreko neurri berariazkoak.

Tributu-zorra geroratzeko edo zatikatzeko 2022an zehar egiten diren eskaerei, baldin eta tributu-arloko departamentu eskudunak badauka esleituta haien diru-bilketa kudeatzeko lana, xedapen berariazko hauek aplikatuko zaizkie:

Lehena. Geroratzetan ez da bermerik eskatuko baldin eta zorraren zenbatekoa, guztira, uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamenduaren 51.1.b) artikuluan ezarritakoa baino txikiagoa bada, betiere zerga edo geroratu beharreko zorrari dagokion kontzeptua ez badago aipatutako Erregelamenduaren 48.3 artikuluan adierazitako salbuespenen artean, maiztasuna hilerokoa bada, epea ez bada bi urte baino handiagoa, eta eskatzaileak geroratzeari eskatutako zorraren 100eko 30 ordaintzen badu tramitatu aurretik.

Bigarrena. Bai borondatezko epean bai ordinarazpen aldiaren egindako geroratzeko edo zatikatzeko eskaeretan, betiere geroratu edo zatikatu beharreko zenbatekoa 6.000 eurotik beherakoa bada, geroratzeko edo zatikatzeko epea hamabi hilekoa gehienez, eta maiztasuna hilerokoa, ez da bermerik eskatuko, ez eta ordainketa tramitazioaren aurretik egin beharra ere.

Hirugarrena. Noiz eta premiamendu bidean geroratu edo zatikatu beharreko zorraren artean baitaude lehenago ere bide horretan geroratu edo zatikatu direnak, jada kitatuak, betiere exijituko da aurreko lehen xedapenean adierazitako ehuneko 30 hori ordaintzea.

Zenbateko horiek halaber exijituko dira bermea eratu beharra dakarten geroratzeko edo zatikatzetan, Diru-bilketaren Erregelamendu aipatutako 50. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Geroratu edo zatikatzeko eskaeran sartutako gainerako zorretarako, baldin badago, aurreko lehen eta bigarren xedapenetan ezarritakoa aplikatuko da.

Laugarrena. Borondatezko epeko zorraren kasuan, geroratzeko edo zatikatzeko eskaera automatikoki ezetsiko da baldin eta osotara kitatu gabe badaude tributu-zorren lau geroratzeko edo gehiagoko, edo Nafarroako Ogasun Publikoaren beste esku-bide ekonomiko batzuen ordainketaren lau geroratzeko edo gehiagoko, salbu eta geroratzeko eskatutako zorrak bermatzen badira edo aurrekoak bermatzen badaude aipatutako Diru-bilketaren Erregelamenduaren 50.1 eta 50.2.a) artikuluetan adierazitako berme motekin soil-soilik”.

Hamalau. Seigarren xedapen iragankorra gehitzea.

“Seigarren xedapen iragankorra. Bikote egonkorren Erregistro Fiskalaren araubide iragankorra.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera ez da onartuko ez inskripzio berririk ez aldaketarik hogeita batgarren xedapen gehigarrian arautzen den bikote egonkorren Erregistro Fiskalean, ezereztea izan ezik.

Aurrekoa gorabehera, 2022an zehar beren efektuei eutsiko diete Erregistro Fiskal horretan lehendik dauden inskripzioek, harik eta bikote egonkorra inskribatu arte Nafarroako Foru Komunitateko bikote egonkorren Erregistro Bakarrean, apirilaren 14ko 27/2021 Foru Dekretuan araututakoan, edo aplikatzeko zaion araudiaren arabera dagokion erregistroan”.

**Seigarren artikulua.** Fundazioen eta babes jardueren zerga-araubidea ezartzen duen Foru Legea.

2021eko uztailaren 17tik aurrera, Fundazioen eta babes jardueren zerga-araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 1 artikulua.

“1. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru lege honetan ezartzen den zerga-araubidea halako fundazioei aplikatuko zaie non eratuak baitira Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioaren 42. Legean eta Nafarroako Fundazioei buruzko ekainaren 30eko 13/2021 Foru Legean ezarritakoaren babesean”.

Bi. I. titulua, VI. kapitulua.

“VI. kapitulua. Zerga-araubide bereziko baldintzak, hari atxikitzea eta hura galtzea.

## 14. artikulua. Betebeharrak.

1. Foru lege honetan erregulatzen den zerga-araubideari atxiki nahi zaizkion fundazioek 13/2021 Foru Legean eta foru lege honetan ezarritako betebeharrak eta baldintzak bete beharko dituzte.

2. Alabaina, hasierako zuzkiduraren zenbatekoa edozein dela ere, fundatzaileak edo fundatzaileek frogatu beharko dute hasierako zuzkidura egokia eta nahikoa dela fundazioaren helburuetarako; horretarako, aurreneko jarduketa-programa aurkeztu beharko dute, urtebeteko epea hartuko duena, azterketa ekonomiko bat erantsita, zeinak, batetik, frogatuko baitu programa bideragarria dela baliabide horiek soilik erabiliz, eta, bestetik, programako jarduera guztien finantzaketa jasoko baitu, osorik, xehatuta eta identifikatzeko moduan.

3. Fundazioak bere betebeharrak egunean izan beharko ditu sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa aurkezteari dagokionez.

## 15. artikulua. Eskaera.

1. Foru lege honetan ezartzen den zerga-araubideari atxiki nahi zaizkion fundazioek eskaera egin beharko diote:

a) Lehendakaritza arloko eskumena duen departamentuari, Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskaerarekin batera, edo

b) Tributu arloko eskumena duen departamentuari, Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribaturik egotearen frogarekin batera.

2. Tributuen arloko eskumena duen departamentuak zilegi izanen du interesdunei eskatzea fundazioaren eta horren estatutuen klausulen norainokoa zehaztasunez ezagutzeko beharrezkoak diren azalpenak eta datu osagarriak.

## 16. artikulua. Eskaera ebaztea.

1. Eskaera ebazteko, tributu arloko eskumena duen departamentuak kontuan hartuko du ez bakarrik ea entitate eskatzaileak betetzen ote dituen eskatu zaizkion forma-betebeharrak, baizik eta, orobat eta bereziki, fundazioaren izaera substantiboa, 13/2021 Foru Legearen 4.1 artikuluan aipatzen dituen interes orokorreko helburuetarako lagungarri izan daitekeen heinean, azpimarra berezia jarriz entitatearen xedean eta helburuetan, dituen baliabideetan, hark antzeko beste erakunde batzuekin edo administrazio publikoarekin koordinaturik lan egiteko moduan, eta fundazioaren jardueren, prestazioen eta zerbitzuen proiektio pertsonala zein lurralde-mailakoa.

2. Dokumentazioa azterturik eta kontuan hartuta 1. apartatuan xedatutakoa, tributu arloko eskumena duen departamentuak ebazpena emanen du, fundazioari zerga araubide berezia aplikatzeko baimena edo ukoa adieraziko duena.

3. Ebazpena sei hilabetean eman beharko da:

a) Fundazioen Erregistroko inskripzioaren egunetik hasita, 15.1.a) artikuluan aipatzen den kasuan.

b) Araubidea aplikatzeko eskaera egiten deneetik hasita, 15.1.b) artikuluan aipatzen den kasuan.

Epe hori esanbidezko ebazpenik eman gabe iragaten bada, entitateak ulertzen ahalko du araubide hori aplikatzen ahal duela araubidea aplikatzeko eskaeraren aurkezpen-egunetik, baldin eta foru lege honetan eta 13/2021 Foru Legean aurreikusitako baldintzak eta betebeharrak betetzen badira.

4. Aldeko ebazpena ematen bada, bertan zehaztuko da zer egunetatik aurrera aplikatzekoa izanen den zerga-araubide berezia.

17. artikulua. Zerga-araubidea egiaztatzea eta galtzea.

Tributuen arloko eskumena duen departamentuak egiaztatuko du zerga araubide berezi horretaz baliatzeko beharrezkoak diren betebeharrak betetzen diren, eta, hala behar denean, fundazioaren tributu arloko egoeraren ondoriozko erregularizazioa eginen du.

Foru lege honetan eta 13/2021 Foru Legean ezarritako edozein baldintza urratzeak entitateari ekarriko dio urraketa gertatu den ekitaldiari dagozkion kuota guztiak ordaindu beharra, sozietateen gaineko zergarenak, tokiko tributuenak eta ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarenak, betiere tributu horien gaineko araudiak agintzen duenaren arabera; eta, horiez gain, berandutze-interesak eta kasuan bidezko diren zehapenak.

Aurreko paragrafoan ezarritako betebeharra izanen da oker aplikatutako emaitza eta diru-sarrerak lortu ziren ekitaldiari dagozkion kuotei buruzkoa, 13/2021 Foru Legearen 47. artikuluan ezarritako baldintzaren kasuan, eta urraketa gertatu den ekitaldiko eta aurreko lauretako kuotei buruzkoa, foru lege horren beraren 21. artikuluan jasotzen den kasuan, ezertan galarazi gabe kasu bakoitzean aplikatzekoak diren zehapenak”.

Hiru. Bigarren xedapen gehigarria.2.

“2. Zerga-araubide honen aplikazioa baldintzatuta egonen da Nafarroako Foru Ogasunari

frogatzera bete egiten direla kasu bakoitzean aurreko 1. apartatuan ezarritakoarekin bat eskatzen diren betekizunak, eta apartatu horretan aipatzen diren entitateek betetzera 13/2021 Foru Legearen 48.3 eta 49. artikuluetan eta foru lege honen 14.3 artikuluan fundazioei ezartzen zaizkien eskakizunak”.

**Zazpigarren artikulua.** Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko Foru Legea.

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 36.3 artikulua, lehenengo paragrafoa.

“3. Udal bakoitzerako batzorde mistoa lankidetzatza teknikorako organo bat da, udalaren balorazio txostenaren edukia finkatzeko eratzten dena, eta osaturik egonen da kasuko udalaren hiru ordezkariarekin, udalak berak aukeratuak, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren hiru ordezkariarekin, Nafarroako Foru Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak hautatuko dituenak bertako teknika-rien artetik”.

Bj. 37 bis.7 artikulua, lehen paragrafoa.

“7. Batzorde mistoa lankidetzatza teknikorako organo bat da, eskualdeko udalez gaingiko balorazio txostenaren edukia finkatzeko eratzten dena. Kasuko eskualdearen hiru ordezkari izanen ditu, eskualdeak berak aukeratuak, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren hiru ordezkari, Nafarroako Foru Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak hautatuko dituenak bertako teknika-rien artetik”.

Hiru. Hirugarren xedapen gehigarria, indargabetzea.

**Zortzigarren artikulua.** Tasa eta Prezio Publiko buruzko Foru Legea.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuekin, Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoetako tasa eta prezio publiko buruzko otsailaren 11ko 2/2021 Foru Legearen artikulua hauek testu hau izanen dute:

Bat. 22.6 artikulua.

“6. Hobariak.

5. apartatuaren f) letran aipatzen diren tasek ehuneko 50eko hobaria izanen dute, kategoria orokorreko familia ugarietako kideei eta kategoria orokorreko familia gurasobakarretako nahiz gurasobakartasun egoeran dauden familietako kideei emandako zerbitzuengatik”.

Bj. 23. artikulua.

“23. artikulua. Funtzio publikoan sartzeko hautaproseduretan parte hartzeko eskubideengatik tasa.

1. Zerga-egitatea.

Tasak zerga-egitatetzat du Administrazioak zerbitzuak ematea, beharrezkoak direnak funtzio publikoan sartzekoak diren hautaproseduretan parte hartzeko.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira tasaren zerga-egitatea osatzen duen zerbitzu-ematea eskatzen duten pertsona fisikoak.

3. Sortzapena.

Tasa sortuko da hautaproseduretan izena emateko eskaera aurkezten den unean.

4. Tarifak.

Tarifa hauen arabera eskatuko da tasa:

		Euroak
1. TARIFA	Karrerako funtzionario gisa A mailan sartzeko	41.60
2. TARIFA	Karrerako funtzionario gisa B mailan sartzeko	41.60
3. TARIFA	Karrerako funtzionario gisa C mailan sartzeko	26.00
4. TARIFA	Karrerako funtzionario gisa D mailan sartzeko	15.60

## 5. Salbuespenak.

a) % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonak.

b) Hautapen deialdia argitaratu baino hilabete bat lehenagotik gutxienez langabe gisa inskribaturik dauden pertsonak”.

Hiru. 36. artikulua, 1. apartatuko c) letra kentzea eta, hortaz, oraingo c) letraren edukia b) letra izanen da; 4. apartatua, 14. tarifa kentzea, eta, hortaz, oraingo 15., 16., 17. eta 18. tarifak aurrerantzean 14., 15., 16. eta 17. tarifak izanen dira; eta honako edukia duten lau tarifa berri gehitzen dira:

“18. TARIFA	Musika-irakaskuntza profesioetan sartzeko proba	18,64
19. TARIFA	Goi mailako musika-ikasketetan sartzeko proba	61,79
20. TARIFA	Goi mailako diseinu-ikasketetan sartzeko proba	61,79
21. TARIFA	Musikako lanbide titulua eskuratzeko proba	106,64”

Lau. 36.5 artikulua, A) letra, lehen paragrafoa; A) b) Bigarrena eta B) letra.

“A) 4. apartatua aurreikusitako zerbitzu gutxietan aplikatzekoak”.

“Bigarrena. Ehuneko 50eko hobaria kategorian orokorreko familietako kideentzat”.

“B) 13. tarifa aurreikusitako zerbitzuari aplikatuko zaio: langabeentzako salbuespena, baldin eta prozedura izena eman aurretik hilabetez gutxienez langabezian egon direla frogatzen badute organo eskudunak jaulkitako txartela aurkeztuz”.

Bost. 39. artikulua, indargabetzea.

Sei. 43.4 artikuluar 4. tarifa gehitzea.

“4. TARIFA	Gidarien prestakuntzarako eta haiei osasun-azterketak egiteko zentroak	
	1. Zentroa irekitzea Gidari-eskola partikularrak edo haien atalak, gidarien prestakuntzarako beste zentro batzuk edo gidarien osasun-azterketarako zentroak ireki eta haiek funtzionatzeko baimena edo haien inskripzioa.	437,53
	2. Elementu pertsonalak edo materialak aldatzea (ikuskapenarekin nahiz ikuskapenik gabe) Gidari-eskola partikularrentzako edo haien atalentzako, gidarien prestakuntzarako beste zentro batzuentzako edo gidarien osasun-azterketarako zentroentzako funtzionamendu-baimena aldatzea, haien elementu pertsonalak edo materialak aldatzeagatik: ikuskapenarekin nahiz ikuskapenik gabe.	44,14
	3. Gidari-eskola partikularretako zuzendari eta irakasleentzako gaitasun-ziurtagiriak eta beste titulu batzuk jaulkitzea, bai eta horien kopiak ere.	98,98
	4. Plakak trokelatzea edo erregistro liburuak zigilatzea.	8,59
	5. Autoeskolaren edo osasun azterketarako zentroaren ikuskapena, erregelamenduzko aginduaren ondorioz egina (gehienez ere urtean bi).	79,18
	6. Bide-hezkuntzako irakasleentzako jardute-baimenak.	10,40
	7. Salgai arriskutsuen garraiorako ibilgailuetako gidarien eta prestatzaileen prestakuntza-ikastaroak onestea.	10,40
	8. Edozein motatako idatz-oharrak espedienteetan, datu-ematea, ziurtapenak, erkaketak, kopia kautotuak (kopia hutsa jaulkitzea ez denean bidezkoa), agiriak xehakatzea eta edozein plaka edo liburu zigilatzea.	8,59
9. Azterketa eskubideak Parte hartzea bide-hezkuntzako irakasleentzako gaitasun ziurtagiria lortzeko ikastaroan eta gidari-eskoletako zuzendaria izateko gaitasun ziurtagiria lortzeko hautaprobak.	46,23”	

Zazpi. 54.4 artikulua.

“4. Tarifak.

Tarifa hauen arabera eskatuko da tasa:

		Euroak
1. TARIFA	LANDARE-BIOLOGIAKO LABORATEGIA	
	1. Erneketa, 400 hazirena gehienez, papera tartean/gainean	10,00
	2. Erneketa, 400 hazirena gehienez, beste substratu batzuetan	15,00
	3. Artoaren eta ekilorearen purutasuna	8,00
	4. Beste espezie batzuen purutasuna	5,00
	5. Beste espezie batzuetako hazien kopurua	5,00
	6. Nematodoen erauzketa eta identifikazio morfologikoa	30,00
	7. Onddoen bakartzea eta identifikazio morfologikoa	30,00
	8. Bakterioen bakartzea eta identifikazioa teknika mikrobiologikoen bidez	40,00
	9. ELISA	18,00
	10. Immunofluoreszentzia	20,00
	11. PCR	35,00
	12. Artropodoen eta beste izurri eta bektore batzuen identifikazio morfologikoa	30,00

		Euroak
2. TARIFA	ABEREEN LABORATEGIA	
	1. ELISA	15,00
	2. Konplementuaren finkapena	30,00
	3. Immunodifusioa agar-gelean	20,00
	4. Aglutinazioa Bruzelosia Bengalako arrosa	4,00
	5. <i>Salmonella</i> spp-ren bakartzea eta identifikazioa	30,00
	6. <i>Salmonella</i> spp-ren serotipatua	45,00
	7. <i>Mycobacterium</i> spp-ren bakartzea eta identifikazioa	100,00
	8. Beste bakterio batzuen bakartzea eta identifikazioa/kuantifikazioa	50,00
	9. PCR	35,00
	10. Artropodoen identifikazio morfologikoa / zenbaketa	25,00

1.9, 2.1, 2.2 eta 2.9 tarifetan, deskontu hauek aplikatuko dira, guztira eskatu diren determinazio analitiko bereko analisien kopuruaren arabera:

a) 11 eta 15 bitartean: ehuneko 25.

b) 26 eta 50 bitartean: ehuneko 50.

c) 51 eta 100 bitartean: ehuneko 60.

d) 101 eta 500 bitartean: ehuneko 70.

e) 500 baino gehiago: ehuneko 75.



3. TARIFA	ENOLOGIA LABORATEGIA ANALISI SINPLEAK	Euroak
1. Butanol-1 eta Butanol-2	Gasen kromatografia	7,00
2. Propanola	Gasen kromatografia	7,00
3. Azetaldehidoa	Gasen kromatografia	7,00
4. Etilo azetatoa	Gasen kromatografia	7,00
5. Metilo azetatoa	Gasen kromatografia	7,00
6. Azidotasun finkoa	Kalkulua	2,00
7. Azidotasun osoa	Bolumetria – MANB- Potenziometria	2,30
8. Azidotasun lurrunkorra	Bolumetria – MANB	2,30
	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	
9. Azido azetikoak	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	2,30
10. Azido askorbikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,00
11. Azido bentzoikoa	Likidoen kromatografia, bereizmen handikoa	9,70
12. Azido zitrikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,00
13. Azido glukonikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,00
14. Azido laktikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,00
15. Azido malikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	5,00
16. Azido salizilikoa	Likidoen kromatografia, bereizmen handikoa	9,70
17. Azido sorbikoa	Likidoen kromatografia, bereizmen handikoa	9,70
18. Azido tartarikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,00
19. Errautsen alkalinitasuna	Bolumetria	2,88
20. Anhidrido sulfuroso librea	Espektrofotometria ikusgai ultramorea. Balorazioa	2,28
21. Anhidrido sulfurosoa, guztira	Espektrofotometria ikusgai ultramorea. Balorazioa	2,28
22. Antozianoak	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	3,00
23. Artsenikoa	Atomo-xurgapenezko espektrofotometria – Grafito labea	24,00
24. Azukre erreduzitzaileak, guztira	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	2,28
25. Azukreak, guztira	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	3,90
	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,60
26. Bromuroak	Potenziometria	2,83
27. Kadmioa	Atomo-xurgapenezko espektrofotometria-Grafito labea	24,00
28. Kaltzioa	Sugardun atomo-xurgapenezko espektrofotometria	11,00
29. Kaseina	ELISA (1-3 lagin)	50,00
	ELISA (4-10 lagin)	40,00
30. Katekinak	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	3,00
31. Errautsak	Grabimetria	3,00
32. Kloruroak	Potenziometria	2,50
33. Kobrea	Sugardun atomo-xurgapenezko espektrofotometria	11,00
34. Koloragarri sintetikoak	Erauzketa-Finkapena	6,30
35. Konduktibitatea	Konduktimetria	2,28
36. Cielab a koordinatua*	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	4,00
37. Cielab b koordinatua*	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	4,00
38. Cielab l koordinatua*	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	4,00
39. Cielab c koordinatua*	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	4,00
40. Cielab h koordinatua*	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	4,00
41. Cielab s koordinatua*	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	4,00
42. Akats organoleptikoak	Behaketa	2,30
43. Dentsitate optikoa, 280 NM	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	2,00
44. Dentsitate optikoa 420 NM	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	2,00

45. Dentsitate optikoa 520 NM	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	2,00
46. Dentsitate optikoa 620 NM	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	2,00
47. Dentsitate erlatiboa 20° C-tan	Dentsimetria elektronikoa	1,50
48. Dietilenglikola	Gasen kromatografia	5,50
49. Egonkortasun proteikoa	Nefelometria	5,00
50. Egonkortasun tartarikoa	Prezipitazioa	5,00
51. Etanola	Gasen kromatografia	5,50
52. Aterakin ez-erreduzitzailea	MANB kalkulua	5,78
53. Aterakin erreduzitua	MANB kalkulua	5,78
54. Aterakin lehorra, guztira	Kalkulua edo lurrunketa	3,50
55. Ferrozianuroa disoluzioan	Prezipitazioa	6,30
56. Ferrozianuroa esekiduran	Prezipitazioa	6,30
57. Fluoruroak	Elektrodo hautakorrak	2,83
58. Glizerina	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,00
59. Glukosa + fruktosa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,60
60. Alkohol gradua pisuan	Destilazioa	3,90
61. Eskuratutako alk. gradu bolumetrikoa	Espektrofotometria infragorri hurbila	2,00
	MANB-Dentsimetria elektronikoa	3,90
62. Alkohol gradua potentzian	MANB kalkulua	1,80
63. Alkohol gradua, guztira	MANB kalkulua	4,28
64. Beaume gradua	MANB kalkulua	1,80
65. Birx gradua (sakarosaren %)	MANB kalkulua	1,80
66. Gradu probablea	Errefraktometria-MANB	1,80
67. Burdina	Sugardun atomo-xurgapenezko espektrofotometria	11,00
68. Histamina	ELISA (1-3 lagin)	50,00
	ELISA (4-10 lagin)	40,00
69. Kolmatazio indizea	Mintz bidez iragaztea	6,30
70. Folin-Ciocalteu indizea	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	3,00
71. Antozianoen ionizazio indizea	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	3,00
72. Oxidasetako polifenol indizea	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	3,00
73. Koloragarriaren intentsitatea	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	2,00
74. Isoamilikoak	Gasen kromatografia	7,00
75. Isobutanola	Gasen kromatografia	7,00
76. Gardentasuna	Behaketa	2,30
77. Lisozima	ELISA (1-3 lagin)	50,00
	ELISA (4-10 lagin)	40,00
78. Nitrogeno amoniakala	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,00
79. Nitrogeno $\alpha$ -aminikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	6,00
80. Nitrogeno asimilaeraza	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	12,00
81. Magnesioa	Sugardun atomo-xurgapenezko espektrofotometria	11,00
82. Masa bolumikoa 20 °C-an	MANB-Dentsimetria elektronikoa	1,50
	Errefraktometria	1,80
83. Metanola	Gasen kromatografia	7,00
84. Okratoxina	ELISA (1-3 lagin)	50,00
	ELISA (4-10 lagin)	40,00
85. Oboalbumina	ELISA (1-3 lagin)	50,00
	ELISA (4-10 lagin)	40,00
86. pH-a	Potentziometria	2,28

87. Beruna	Atomo-xurgapenezko espektrofotometria–Grafito labea	24,00
88. Hezetasun portzentajea	Grabimetria	3,50
89. Potasioa	Sugardun atomo-xurgapenezko espektrofotometria	11,00
90. Hibridoaren presentzia	Fluoreszentiaren espektrofotometria	5,25
91. Bakterio azetikoaren kontaketa	Plakako kontaketa	12,00
92. Bakterio laktikoaren kontaketa	Kontaketa plakan	12,00
93. Brettanomyces kontaketa	Plakako kontaketa	12,00
94. Legamia kontaketa	Plakako kontaketa	12,00
95. Mikroorganismo aerobio mesofiloaren kontaketa	Plakako kontaketa	12,00
96. Lizun kontaketa	Plakako kontaketa	12,00
97. Aterakinaren gainerakoa	Kalkulua	10,00
98. Sakarosa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	8,00
99. Gainpresioa	Manometria	1,50
100. Sodioa	Sugardun atomo-xurgapenezko espektrofotometria	11,00
101. Sulfatoak	Prezipitazioa	5,50
102. Tonalitatea	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	2,00
103. Uhartasuna	Nefelometria	5,50
104. Zinka	Sugardun atomo-xurgapenezko espektrofotometria	11,00
OLIOA		
105. K232	Espektrofotometria ultramorea	7,00
106. K270	Espektrofotometria ultramorea	7,00
107. DELTA K	Espektrofotometria ultramorea	7,00
108. Azidotasuna	Bolumetria	7,00
109. Peroxidoen indizea	Bolumetria	7,00

4. TARIFA	ENOLOGIA LABORATEGIA. ANALITIKA MULTZOAK	Euroak
AZKEN HARTZIDURA		6,50
1. Azido malikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	
2. Glukosa + fruktosa		
3. Azido azetikoa		
EUOPAR BATASUNEN BARNE MERKATUA EDO BOTILAKO/ONTZIRATU GABEKO ARDOAK ESPORTATZEA:		Lehorrak 16,00 Gozoak 18,00
1. Azidotasun lurrunkorra	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	
2. Anhidrido sulfurosoa, guztira		
3. Azukre erreduzitzaileak, guztira		
4. Azido zitrikoa	Espektrofotometria ikusgai ultramorea/entzimatikoa	
5. Alkohol gradu bolumentrikoa	Infragorri hurbilezko espektrofotometria (lehorrak) MANB–Dentsimetria elektronikoa (gozoak)	
6. Azidotasun osoa	Potentziometria	
7. Metanola	Gasen kromatografia	
8. Alkohol gradua, guztira	Kalkulua	
9. Aterakin lehorra, guztira		
10. Masa bolumikoa 20 °C-tan	Dentsimetria elektronikoa	
11. Akats organoleptikoak eta gardentasuna	(ontziratatu gabeko ardoetarako soilik)	
EDARI DESTILATUEN EUOPAR BATASUNEN BARNE MERKATUA EDO ESPORTAZIOA		5,00
1. Alkohol gradu bolumentrikoa	Dentsimetria elektronikoa (2870/2000 EEE)	
2. Masa bolumikoa 20 °C-tan		
3. Beaumé gradua	Kalkulua	
OSORIK		Lehorrak 8,00 Gozoak 9,00
1. Alkohol gradu bolumentrikoa	Infragorri hurbilezko espektrofotometria (lehorrak) MANB–Dentsimetria elektronikoa (gozoak)	
2. Azidotasun lurrunkorra	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	
3. Azukre erreduzitzaileak, guztira		
4. Azidotasun osoa	Potentziometria	
5. pH-a		
6. Anhidrido sulfurosoa, guztira	Espektrofotometria ultramorea	
7. Anhidrido sulfuroso librea		
EBALUAZIO ERREFRAKTOMETRIKOA MUZTIOETAN		2,00
1. Azukreak, guztira (g/l)	Errefraktometria-MANB	
2. Masa bolumetrikoa 20°C-tan		
3. Errefrakzio indizea		
4. Gradu probalea		
5. Brix gradua (sakarosaren %)		

GOI MAILAKO ALKOHOLAK		8,00
1. Butanol-1 eta Butanol-2	Gasen kromatografia	
2. Propanola		
3. Azetaldehidoa		
4. Etilo azetatoa		
5. Metilo azetatoa		
6. Metanola		
7. Isiamilikoak		
8. Isobutanola		
KOLOREAREN TALDEA		4,00
9. Dentsitate optikoa 420 NM	Espektrofotometria ikusgai ultramorea	
10. Dentsitate optikoa 520 NM		
11. Dentsitate optikoa 620 NM		
12. Koloragarriaren intentsitatea		
CIELAB PARAMETROAK		4,00
1. a* osagai gorria	Espektrofotometria ikusgai ultramorea / MANB	
2. b* osagai horia		
3. L* argitasuna		
4. C* kromatizitatea		
5. H* tonalitatea		
6. S* asetasuna		
MIKROBIOLOGIA MULTZOA		30,00
1. Bakterio laktikoen kontaketa		
2. Bakterio azetikoaren kontaketa		
3. Legamien kontaketa		
4. Lizunen kontaketa		

Analitika-multzo bat eginda ere, entsegu indibidualen bat egin behar baldin bada multzoan eskainitakoaz bestelako teknika baten bidez, teknika horren kostu indibiduala multzoaren zenbatekoari gehituko zaio.

5. TARIFA	NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN LABORATEGIA. KONTZEPTU ADMINISTRATIBOAK	Euroak
	1. Kopia eta jatorrizkoak, lehenbiziko entsegu-txostenetik aurrera	2,00
	2. Ziurtagiriak eta txostenak	6,00"



**Bederatzigarren artikulua.** Ekonomia-jardueren gaineko zergaren edo lizentzia fiskalaren tarifak eta jarraibidea onesten dituen Foru Legea.

Ekonomia-jardueren gaineko zergaren edo lizentzia fiskalaren tarifak eta jarraibidea onesten dituen maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legean aldaketa hauek egiten dira:

**Ba.** Lehen sekzioa, 6. dibisioa, 66. taldea, 661. multzoa, 661.9 epigrafea gehitzea eta bigarren ohar komuna aldatzea

“661.9 epigrafea. Bestelako merkataritza mistoa edo saltoki handietan integratua; hau da, modu espezializatuan egiten dena halako establezimenduetan non publikoari honako arlo hauekin zerikusia duten produktuak erakutsi eta saltzeko azalera erabilgarria 2.500 m<sup>2</sup>-koa edo handiagoa baita: brikolajea eta etxerako ekipamendua, etxerako eta bulegorako altzariak, artikulua elektronikoak eta elektrotresnak, automobilerako artikulua, kirolerako artikulua eta beste batzuk.

Kuota:

10.000 m<sup>2</sup>raino: 1,40 euro m<sup>2</sup>ko.

10.001etik 20.000 m<sup>2</sup>raino: 1,35 euro m<sup>2</sup>ko.

20.001etik 30.000 m<sup>2</sup>raino: 1,25 euro m<sup>2</sup>ko.

30.000 m<sup>2</sup> baino gehiago: 1.15 euro m<sup>2</sup>ko.

Oharra: Publikoari erakutsi eta saltzeko azalera erabilgarritzat joko da artikulua zuzeneko salmentarako ikusgai ipintzen direnekoa, estalia nahiz estaligabea eta kontsumitzaileak erabiltzeko modukoa”.

Multzo honen kuotak kalkulatzeko, establezimenduaren azalera guztia konputatuko da (erostetxe handia, hipermerkatua, erostetxe popularra edo bestelako saltoki handi bat), barne harturik bulego, aparkaleku estali, biltegi eta abarretarako eremuak. Halaber konputatuko dira erabilera lagatze edo beste edozein tituluren bidez hirugarren batzuek okupatutako eremuak. Ez dira konputatuko, aldiz, azalera estaligabeak, edozein izanik ere haien erabilera”.

**Bi.** Lehen sekzioa, 6. dibisioa, 66. taldea, 664. multzoa, 664.2 epigrafea gehitzea

“664.2 epigrafea. Ibilgailu elektrikoetarako kargaguneak.

Gutxienerako udal-kuota: 13,56 euro, kargagune bakoitzeko.

Kuota hori kargagunea jarrita dagoen establezimendu edo lokalaren titularrak ez bestek ordainduko du.

Kuota nazionala: 13,56 euro, kargagune bakoitzeko.

Kuota hori kargaguneen jabeak ez bestek ordainduko du”.

**Hiru.** Lehen sekzioa, 9. dibisioa, 96. taldea, 969. multzoa, 969.7 epigrafea

“969.7 epigrafea. Beste makina automatiko batzuk.

969.7.1 azpiepigrafea. Instalaturako beste makina automatiko batzuk, non ari diren funtzionatzen kontuan izan gabe.

Gutxienerako udal-kuota: 4,51 euro, makina bakoitzeko.

Oharra: kuota hori makina instalatuta dagoen establezimendu edo lokalaren titularrak ez beste inork ordainduko du.

969.7.2 azpiepigrafea. Beste makina automatiko batzuen titulatasuna, kontuan izan gabe non ari diren funtzionatzen.

Kuota nazionala: 6,44 euro, makina bakoitzeko.

Oharra: kuota hori makinaren jabeak ordainduko du, ez beste inork.

969.7 epigrafe osorako oharra: Epigrafe honetan sartuta dago makina automatikoen bitarteko zerbitzu-ematea, hala nola kulunkak, zalditxoak, animalia hiztunak eta abar; halaber, dokumentu-plastifikagailuak, txartel-inprimagailuak eta abar, bai eta baskulak eta pisurako, altuerarako, tentsio arterialerako eta abarretarako neurgailuak ere”.

**Lau.** Bigarren sekzioa, 8. dibisioa, 86. taldea, 863. multzoa.

“863. multzoa. Idazleak, kazetariak eta informazioaren eta komunikazioaren beste profesional batzuk.

863.1. epigrafea. Idazleak.

109,99 euroko kuota.

863.2. epigrafea. Kazetariak eta informazioaren eta komunikazioaren beste profesional batzuk.

115 euroko kuota.

Oharra: Epigrafe honetan sailkatutako subjektu pasiboek gaikuntza dute informazioak edo edukiak lortu, tratatu, interpretatu eta jendearenganatzeko, edozein bitarteko erabiliz, dela idatzizkoa, ahozkoa, ikusizkoa, digitala edo grafikoa, bai eta komunikazio instituzional edo korporatiboko planetan aholku emateko eta horiek exekutatzeko ere”.

**Hamargarren artikulua.** Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako efektuekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen manu hauek adierazten den testua izanen dute:

Bat. 162.1 artikulua.

“1. Zergarako kuotak honakoak izanen dira:

	Kuota osoa (eurotan)
a) Turismo ibilgailuak:	
1. 8 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	21.55
2. 8 zaldi fiskaletik 12ra bitarte	60.60
3. 12 zaldi fiskal baino gehiagokoak eta gehienez 16koak	129.26
4. 16 zaldi fiskal baino gehiagokoak	161.64
b) Autobusak:	
1. 21 jarleku baino gutxiago	150.80
2. 21 jarlekutik 50 bitarte	215.47
3. 50 jarleku baino gehiago	269.34
c) Kamioiak:	
1. 1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarrikoak:	75.49
2. 1.000 kiloko karga erabilgarritik 2.999 kg-ra bitartekoak:	150.80
3. 2.999 kg baino gehiagoko eta gehienez 9.999 kg-ko karga erabilgarrikoak:	215.47
4. 9.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarrikoak	269.34
d) Traktoreak:	
1. 16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	37.02
2. 16 zaldi fiskaletik 25era	74.02
3. 25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	147.85
e) Atoiak eta erdi atoiak:	
1. 1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarrikoak:	37.78
2. 1.000 kiloko karga erabilgarritik 2.999 kg-ra bitartekoak:	75.49
3. 2.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarrikoak	150.80
f) Bestelako ibilgailuak:	
1. Ziklomotoreak	5.43
2. 125 cc.rainoko motozikletak:	8.15
3. 125 cc baino gehiagokoak eta 250 cc-rainokoak diren motozikletak:	13.51
4. 250 cc baino gehiagokoak eta 500 cc-rainokoak diren motozikletak:	26.63
5. 500 cc baino gehiagokoak eta 1.000 cc-rainokoak diren motozikletak:	53.29
6. 1.000 cc baino gehiagoko motozikletak:	106,57”

**Bi.** Honako hauek izanen dira 175.2 artikuluan ezarritako gehieneko koefizienteak:

0,55	20 urte edo gehiago
0,20	19 urte
0,20	18 urte
0,06	17 urte
0,06	16 urte
0,06	15 urte
0,06	14 urte
0,06	13 urte
0,06	12 urte
0,06	11 urte
0,06	10 urte
0,12	9 urte
0,19	8 urte
0,35	7 urte
0,41	6 urte
0,33	5 urte
0,26	4 urte
0,18	3 urte
0,11	2 urte
0,13	1 urte
0,06	Urtebetetik behera

**Lehen xedapen gehigarria.** Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergatik eta sozietateen gaineko zergatik salbuestea COVID-19aren ondorioz emandako laguntza berezi batzuk.

Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergatik eta sozietateen gaineko zergatik salbuetsirik egonen dira martxoaren 12ko 5/2021 Errege Lege-dekretuaren babesean emandako laguntzak. Errege lege-dekretu horren bidez enpresen kaudimenari laguntzeko neurri bereziak onartu ziren, Covid-19aren pandemiari erantzunez.

**Bigarren xedapen gehigarria.** 2022an desegin eta likidatzea erabakitzen duten kapital aldakorreko zenbait inbertsio-sozietateetako bazkideei aplikatzekoa den zerga-araubidea.

“1. Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ondorioetarako, Sozietateen gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen berrogeita batgarren xedapen iragankorraren 1. apartatuan ezarritakoaren arabera likidaziodun desegitea egiten duten kapital aldakorreko inbertsio-sozietateetako bazkideek ez dituzte beren zerga-oinarrian sartuko entitatearen likidazioaren ondoriozko errentak, baldin eta likidazio-kuota gisa dagozkien diruaren edo

ondasunen guztizkoa berrinbertitu egiten bada, hurrengo paragrafoetan ezarritako modu eta baldintzetan, Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen 29.4 artikuluko a) eta b) letretan aipaturiko inbertsio kolektiboko erakundeetako batean akzioak edo partizipazioak eskuratu edo harpidetzeko. Kasu horretan, eskuratu edo harpideturiko akzio edo partizipazio berriek mantendu egiten dituzte likidaturiko sozietatearen akzioen eskuratze-balioa eta -data.

Bazkideak aurreko paragrafoan ezarritakoari heltzeko erabakia hartu duela jakinarazi beharko dio likidazio prozesuan den sozietateari. Kasu horretan, likidazioan dagoen entitateak ez dio inolako dirurik ordainduko edo ondasunik emanen likidazio-kuota gisa dagokionari. Halaber, bazkideak akzioen eskurapen-data eta -balioa frogatzen dituen dokumentazioa aurkeztu beharko dio sozietateari, baldin eta sozietateak informazio hori ez badauka.

Berrinbertsioan bazkidearen likidazio-kuota osatzen duten diru edo ondasun guztiak erabili beharko dira, eta ezinezkoa izanen da berrinbertsio partziala egitea. Berrinbertsioa inbertsio kolektiboko erakunde batean edo batzuetan egin ahal izanen da.

Bazkideak datu hauek emanen dizkio berrinbertsioa egiteko aukeratu duen inbertsio kolektiboko erakundeari: bere identifikazio-datuak, likidazio prozesuan dagoen sozietatearenak, entitate kudeatzailearenak eta entitate gordailuzainarenak, eta erakundearen berrinbertituko duen likidazio-kuota osatzen duten dirua edo ondasunak. Horretarako, bazkideak harpidetzeko edo eskuratzeko agindua beteko du, eta erakundeari baime-na emanen dio agindu hori likidazio prozesuan dagoen sozietatearen aurrean izapidetzeko.

Likidazio prozesuan dagoen sozietateak agindua jaso ondoren, berrinbertsioa egin beharko da sozietateak bere gordailuzainari agindurik transferi ditzala, bazkidearen kontu eta haren izenean, berrinbertsioari dagozkion dirua edo ondasunak, likidazioan dagoen sozietatearen kontuetatik berrinbertsioa jasoko duen inbertsio kolektiboko erakundearen kontuetara. Transferentziari berrinbertsioari lotutako likidazio prozesuan dagoen sozietatearen akzioen eskurapen-balioei eta -datari buruzko informazioa erantsiko zaio.

Lehen paragrafoan ezarritako tratamendua aplikagarria izateko, berrinbertsioa egin beharko da Sozietateen gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Legearen berrogeita batgarren xedapen iragankorraren 1. apartatuak likidaziodun desegitearen erabakia hartzeko ezartzen duen epea amaitzen denetik zazpi hilabete igaro baino lehen.

2. Xedapen honetan aipatutako kapital aldako-rrereko inbertsio-sozietateen likidazioetatik eratorritako errenten gainean bazkideari dagokion zerga pertsonalaren konturako ordainketarik ez da egin behar, bazkideak 1. apartatuan araututa dagoen berrinbertsio-araubidea aplikatzeari atxikitzen zaizkionean.

3. Xedapen honetan ezarritakoa ez da aplikatzea izan Inbertsio Kolektiboko Erakundeen azaroaren 4ko 35/2003 Legearen 33. bis artikuluan aipatzen diren inbertsio askeko sozietateen likidaziodun desegitearen kasuetan, ezta aipatu 35/2003 Legea garatze aldera uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Erregelamenduaren 79. artikuluan jasotako kapital aldakorreko inbertsio-sozietate indize kotizatuen kasuan ere”.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Hirugarrenetik eragiketen urteroko aitortpena.

Ez dira behartuta egonen azaroaren 8ko 69/2018 Foru Dekretuak arautzen duen hirugarrenetik eragiketen urteroko aitortpena aurkeztera, 2021ean egin dituzten hirugarrenetik eragiketei dagokienez, pertsona fisikoak eta errenta-eratikitze araubideko entitateak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan, zuzeneko zenbatespeneko araubideko modalitate berezian zergapetzen diren jarduerengatik eta, aldi berean, balio erantsiaren gaineko zergan, araubide berezi erraztuan edo nekazaritza, abelzaintza eta arrantzarenean, edo baliokidetasun-errekarguarenean, salbu eta balio erantsiaren gaineko zergaren ondorioetarako faktura-jaulkipena daukaten eragiketengatik.

Aurrekoa gorabehera, balio erantsiaren gaineko zergako araubide erraztuari atxikitako subjektu pasiboek hirugarrenetik eragiketei buruz urtero egiten duten aitortpenean sartuko dituzte faktura jasoan liburu erregistroan idatziak izan behar diren ondasun- eta zerbitzu-eskuratzeak. Liburu erregistro hori da Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak onetsitako otsailaren 23ko 24/2021 Foru Aginduak, zeinaren bidez 2021. urterako garatzen baita balio erantsiaren gaineko zergaren araubide erraztua, 4. artikuluan aipatzen duena.

Xedapen gehigarri hau erregelamendu bidez aldatzen ahalko da.

**Laugarren xedapen gehigarria.** Nafarroako Gobernuak baimentzea testu bategin bat egiteko, fundazioen, babes jardueren eta mezenasgorako pizgarri fiskalen zerga-araubideari buruzkoa.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 21. artikuluan xedatutakoaren babesean, Nafarroako Gobernuari

baimena ematen zaio fundazioen eta babes jardueren zerga-araubideari eta mezenasgoaren aldeko pizgarri fiskalei buruzko indarreko xedapenak 2023ko ekainaren 1a baino lehen bateratzeko eta, horrekin batera, bateratu beharreko lege-tes-tuak erregularizatu, argitu eta harmonizatzeko.

**Xedapen indargabetzailea.** Arauak indargabetzea.

1. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, indargabetu egiten da Zenbait zerga aldatu eta beste zerga-neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 28ko 25/2016 Foru Legearen 7. artikulua.

2. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin indargabetzen dira:

a) 73/2014 Foru Agindua, otsailaren 19koa, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko bikote egonkorren erregistro fiskalaren edukia eta funtzionamendua arautzen dituena.

b) Bikote egonkorren erregistro fiskalari buruz Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariaren apirilaren 4ko 117/2014 Foru Aginduan egiten diren aipamenak. Foru agindu horrek onesten du 030 eredu berria, “Helbide aldaketaren edo norberaren edo familiakoen datuen aldaketaren berri ematea. Bikote egonkorren erregistro fiskala” izenekoa. Bereziki ezabatzen da “Bikote egonkorren erregistro fiskala” delakoaz izenburuan egiten den aipamena, eta indargabetzen dira 2.4, 2.5 eta 3.2 artikulua (tarteki hau: “...edo bikote egonkorren erregistro fiskaleko inskripzioa bertan behera uzteko eskatzen denean...”), 3.3, 6.1.d) eta 6.2 artikulua.

**Azken xedapenetako lehenbizikoa.** Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko Foru Legea aldatzea.

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 3. quater artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“3. quater artikulua. Etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzeko kenkari fiskalen sistema.

1. Etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzeko kenkari fiskalak, foru lege honen 3. bis artikuluko 2. apartatuak aipatzen dituenak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 68. quinques artikuluan ezarritakoak dira. Testu bategin hori ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

2. Etxebizitza babestuaren eskatzaileen errolda kudeatzen duen ente bereki nahiz kanpoko berak kudeatuko du etxebizitza eskuratzeko eskubidea bermatzeko kenkari fiskalen sistema hori. Aurrekoa gorabehera, etxebizitza-alorrean eskudun den zuzendaritza nagusiari dagokio kudeaketaren ondoriozko egintzak eta ebazpenak ematea”.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko Foru Legearen aldaketa.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legearen 13. artikulua testu hau izanen du:

“13. artikulua.

1. Isurtze-sariaren tarifak hauek izanen dira:

a) Saneamendu-sare publikoetara konektatutako etxeko ur-erabilerak: 0,597 euro metro kubiko bakoitzeko.

b) Saneamendu-sare publikoetara konektatutako ur-erabilerak, etxekoak ez direnak: 0,715 euro metro kubiko bakoitzeko. Kasua bada, karga kutsatzailearen indize zuzentzailea aplikatuko da, erregelamenduz ezarritakoa.

c) Saneamendu-sare publikoetara konektaturik ez dauden baina erakunde eskudunek emandako baimen administratibo beharrezkoak dituzten erabiltzaileek: 0,086 euro metro kubiko bakoitzeko. Ibilgu publikora isurtzeko baimenean ezarritako baldintzak betetzen ez badira, a) edo b) letretan ezarritakoaren arabera dagokion tarifa aplikatuko da.

2. Ur-banatzaille diren entitateek zilegi izanen dute isurtze-sariari aplikatzea ur-horniduraren alorrean erabakitzen dituzten irizpideak, ur-ihes ezkutuaren kasuetan isuritako emariaren kalkulurakoak. Ur-ihes gisa kalkulaturako bolumenari aplikatu beharreko tarifa izanen da 1. c) apartatuan ezarritakoa.

3. Ur-banatzaille diren entitateek zilegi izanen dute isurtze-sariari aplikatzea horniduragatiko tasak arautzen dituzten beren ordenantzek ezarritzen dutena hobari sozialak aplikatzearen kasuetarako.

4. Arazketa-instalazio pribatuetatik datozen lohiei tarifa hauek aplikatuko zaizkie tratatuak izateagatik, baldin eta onartzen badira Nafarroako Ibaian Saneamendurako Plan Zuzendariari atxikitako hondakin-uren araztegiatan:

	Prezioa
5 m <sup>3</sup> arte	42,50 €
10 m <sup>3</sup> arte	85,00 €
10 m <sup>3</sup> baino gehiago	8,50 €/m <sup>3</sup>

5. Aurreko zenbatekoei balio erantsiaren gaineko zerga gehituko zaie.

6. Tarifak honako printzipio hauei jarraituz eguneratuko dira:

a) Finantza-askitasuna, foru lege honetan adierazitako beste baliabide batzuekin batera, bertan aurreikusitako helburuak lortu ahal izateko.

b) Progresibotasuna, ezarpenean.

c) Tratu berdintasuna erabiltzaileentzat, sortzen duten kutsadura-mailaren arabera”.

**Azken xedapenetako hirugarrena.** Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen %0,7a arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea aldatzea.

2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako efektuekin, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7a arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legearen manu hauek honela geratuko dira idatzita:

Bat. 1 artikulua.

“PFEZaren aitortpena eta sozietateen gaineko zergaren aitortpena egitean ‘gizarte-intereseko beste xede batzuk’ hautatu duten zergadunen kuota osoen baturari 100eko 0,7 aplikatetik heldu den zenbatekoak berariazko atxikipena izanen duen aurrekontu-partida bat osatuko du urte bakoitzeko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, ‘gizarte-intereseko beste xede batzuetarako 100eko 0,7ko funtsa’ izenekoa”.

Bj. 4. bis 1. artikulua.

“1. Hiru hilabeteko epean, urteko errenta kanpaina bukatu eta gero, gizarte entitateentzako diru-laguntzetarako deialdiak onetsiko dira. Aipatu deialdiak urtea bukatu baino lehen ebatziko dira, hurrengo urteko urtariletik aurrera bete ahal izan daitezten.

Sozietateen gaineko zergari dagokion urteroko esleipena zehazte aldera, aintzat hartuko dira aurreko hamabi hilabeteetan aurkeztutako autoliki-dazioetatik suertatzen diren kuota osoak, hilabete horiek abian den urteko uztailaren 31tik aurrera zenbatuta.



Aldez aurretik, Nafarroako Gobernuak eta gizarte entitateek adostuak izanen dituzte zeintzuk izanen diren deialdi horien bidez diru-laguntzak jaso behar dituzten jarduera-ildo nagusiak; deialdi horiek Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseiluari eta Nafarroako Ingurumen arloko Kontseiluari igorriko zaizkie, horien berri izan eta onets ditzaten”.

Hiru. 7. artikulua, bigarren paragrafoa.

“Foru lege honetako 3. artikuluan zehaztutako multzo bakoitzeko behar adina deialdi eginen dira, harik eta unean uneko aurrekontu-ekitaldian

suertatzen den ‘gizarte-intereseko beste xede batzuetarako 100eko 0,7ko funts’ guztia agortu arte”.

**Azken xedapenetan laugarrena.** Arauak emateko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak jaulkiko ditu.

**Azken xedapenetan bosgarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako efektuekin.

## **Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko abenduaren 23an egindako Osoko Bilkuran, Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Aipatu foru legea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoren 20.2 eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren 153. artikuluekin bat, gehiengo osoz onetsi da, proiektu osoari buruzko azken bozketan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hau argitara dadin agintzen dut.

Iruñean, 2021eko abenduaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena**

### **ZIOEN AZALPENA**

19/2017 Foru Legeak aldatu zuen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea, Konstituzio Auzitegiaren 2017ko ekainaren 5eko 72/2017 Epaia betearazteko (2017ko uztailaren 15eko EAO n argitaratu zen).

Aipatutako epaiak 686-2017 zenbakiko konstituzio-kontrakotasuneko arazoa baietsi zuen, eta, beraz, deklaratu zuen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 175.2, 175.3 eta 178.4 artikulua, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergari buruzkoak, Konstituzioaren kontrakoak eta baliogabeak direla, betiere, ahalmen ekonomikoa adierazten ez duten egoerak zergapetzen dituzten aldetik.

Hori dela eta, aipatutako 2/1995 Foru Legea aldatu zen, hiri-lurren balio-gehikuntzarik gertatzen ez denean eragiketak zergapetzetik kanpo uzteko. Aldaketak Konstituzio Auzitegiaren irizpideak aplikatu zituen, hau da: batetik, auzitegiak zioen guztiz egokia dela balio-gehikuntzak zergapetzeko helburua duen politika legegile bat aukeratzea, balizko ahalmen ekonomikoak zenbatesteko sistema objektibo batean oinarritzen dena, eta ez egiazko ahalmen ekonomikoaren arabera; bestetik, Auzitegiaren iritziz, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga hori, orduan legeetan jasota zegoen moduan, Konstituzioaren

araberakoa da eragiketan lurren balio-gehikuntza gertatzen denean.

Hala ere, Konstituzio Auzitegiak 2021eko urriaren 26an emandako Epaiak, 4433-2020 konstituzio-kontrakotasuneko arazoa ebazten duenak, deklaratu du Konstituzioaren kontrakoak eta baliogabeak direla Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategineko 107.1 (bigarren paragrafoa), 107.2.a) eta 107.4 artikulua (testu bategineko martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi zuen), eta adierazten du bere 5. oinarri juridikoan zerga-oinarria zenbatesteko egungo sistema objektiboa eta nahitaezkoa mantentzeak urratzen duela zergapetzeko irizpide gisa ahalmen ekonomikoa erabiltzearen printzipioa (Espainiako Konstituzioaren 31.1 art.), higiezin merkatuaren eta krisi ekonomikoaren errealitatearekin zerikusirik ez duelako eta, beraz, ez duelako kontuan hartzen zergak kargatzen duen eta zergadunak frogatzen duen ahalmen ekonomikoa.

Horrez gain, epaiak dio zerga-oinarria zenbatesteko metodo hau Konstituzioaren arabera zilegi izan dadin, zergaren aplikazioa erraztean edo praktikotasun administratiboan oinarritutako arrazoiengatik, (i) ez luke zerga-oinarria zenbatesteko metodo bakarra izan beharko eta legez aukera eman beharko litzateke balio-gehikuntzaren zuzeneko zenbatespenak egiteko, edo (ii) kargatu beharko litzateke batez besteko edo presuntziozko (balizko) gehikuntzak, hau da, hala aurreikusitako edo pentsatutakoenez, edozein hiri-lurretan denboraren poderioz gertatzen direnak (SSTC 26/2017, FJ 3; 371/2017, FJ 3; 59/2017, FJ 3; 72/2017, FJ 3 eta 1 26/2019, FJ 3).

Aurrekoarekin bat, eta epaiak aipatzen ez badu ere Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea, uste da komeni dela babes-arau bat sartzea lege horretan, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren tributazioa ez dadin izan inola ere ahalmen ekonomikoaren printzipioaren kontrakoak, eta, subjektu pasiboak hala eskatzen badu, aukera egon dadin tributu-karga egokitze beneratzen lortutako balio-gehikuntzara.

Horrela, zergaren oinarria zenbatesteko sistema objektiboa hautazko sistema bat bihurtzen da, zeina aplikatuko baita soilik subjektu pasiboak arestian azaldutako eskubideaz baliatzen ez denean.

Foru legeak artikulua bakar bat eta azken xedapen bat ditu.

Proiektu hau egitean aintzat hartu dira arauketa onaren printzipioak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 129. artikuluan ezarriak.

Foru legea, hori prestatzeko prozedura eta gainerako arauetan dituen ondorioak Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta nafarroa.eus webgunean argitaratzeak zaintzen du gardentasun eta irisgarritasun printzipioak errespetatuak izatea.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 152. eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, foru lege proiektu hau onesteko gehiengo osoa beharko da.

Segurtasun juridikoaren izenean, lege aldaketa hau lehenbailehen egitea beharrezkotzat jotzen denez, foru lege hau presako prozeduraren bidez eta irakurketa bakarrean tramitatzeko asmoa dago, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 110. eta 158.1 artikuluetan, hurrenez hurren, xedatuari jarraikiz.

**Artikulu bakarra.** 2021eko urriaren 26tik aurrera gertatzen diren zerga-egitateetan ondorioak izateko, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 172.4. artikulua, hirugarren paragrafoa.

“Balio-gehikuntzarik ez dela izan frogatzeko, lurraren eskualdaketaren eta eskurapenaren balio errealak izanen dira, hurrenez hurren, ondasun higiezinaren eskualdaketan eta eskurapenean

ordaindutakoak, eragiketa horiek dokumentatzen dituzten tituluetan ageri direnak (eragiketa horiek kargatzen dituzten gastuak edo tributuak kontuan hartu gabe ondorio horietarako), edo, bestela, udalak edo higiezinaren eskualdaketa kargatzen duen zerga kudeatzeaz arduratzen den Zerga Administrazioak egiaztatutakoak, haiek baino handiagoak badira”.

Bi. 175.2 artikulua, paragrafo bat gehitzea amaieran.

“Aurreko paragrafoan aipatzen den eguneratzearen ondorioz, udalak onetsitako koefizienteren bat legezko gehieneko koefiziente berria baino handiagoa bada, berria aplikatuko da zuzenean, udalak gehiegizkoa zuzentzeko onesten dituen koefiziente berriek indarra hartu arte”.

Hiru. 175.6 artikulua.

“6. Nahitaezko desjabetzeen kasuan, 2. apartatuan aurreikusitakoari jarraikiz sortzealdiari dagokion koefizientea aplikatuko da prezio-justuaren barruan lurraren balioari dagokion zatiaren gainean, salbu eta 3. apartatuan zehaztutako balioa txikiagoa bada, kasu horretan lehentasuna horrek izanen baitu prezio-justuaren aurretik”.

Lau. 175. artikulua, 7. apartatua gehitzea.

“7. Subjektu pasiboak eskatuta, egiaztatzen bada 172.4 artikuluan xedatutakoaren arabera zenbatetsitako balio-gehikuntzaren zenbatekoa txikiagoa dela aurreko apartatuetan xedatutakoaren arabera zenbatetsitako zerga-oinarriaren zenbatekoa baino, balio-gehikuntza horren zenbatekoa hartuko da zerga-oinarritzat”.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.



---

**D saila:**  
**HITZARMENAK**

---

**Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa aldatze aldera Koordinazio Batzordeak sinaturiko akordioa.**

*OSOKO BILKURAN ERRETIRATUA*

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2021eko abenduaren 23an egindako bileran, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa erretiratu izanaren berri izan zuen. Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa hori Nafarroako Gobernuak aurkeztu

zuen eta 2021eko abenduaren 22ko 147. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko abenduaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---



